

1.- JUSTIFIKAZIOA

Ikastetxeetako BA (Barne Araudia) oinarritzko tresna da, hezkuntza-komunitate guztiaren parte-hartzearekin Hezkuntza Proiektua hobeto garatuko bada. BAK Urretxu-Zumarraga Ikastolako Irakaskuntza Kooperatibaren izaera eta kultura errespetatuko ditu, bai eta Ikastola osatzen dutenen eskubideak ere, indarrean dauden legeei eta araei jarraituz.

Barne Araudiak (BAK) Urretxu-Zumarraga Ikastolako antolamenduaren esparru guztiak deskribatzen ditu, hezkuntza-bizitza eta ekintza arautu, ikastetxeko pertsona bakarreko zein kide anitzeko organoen eragin-eremua mugatu eta pertsonen eta taldeen eskumenak eta funtzionamendu-arau orokorrak zehazten ditu, kooperatiba eratzeko momentuan haren helburuen oinarritzat hartu zuten herritarren espirituari jarraituz

BA honek Urretxu- Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba osatzen dugun guztion ekintzak gero eta gardenagoak izaten lagundu behar du, kooperatiban sortzen diren harreman dinamikoak eta aldakorrak malgutasunez eta modu partekatuan egituratuz, eta funtzionamendu-prozedurak denek parte har dezaten bideratuz.

Parte-hartze hori eraginkorra izango bada, aldez aurretik zehaztutako bideetatik gidatu behar da, gainerakoen eskubide guztiak, zerbitzuaren prestazioa, eta Kooperatibaren xede soziala eta izaera errespetatuz (azken horiek Curriculum Proiektuan eta urteko plan estrategikoetan zehaztuta daude).

Ikastolaren Hezkuntza Proiektua gauzatzeko eta aplikatzeko tresna da BA. Kooperatibako pertsona guztiek, nork bere lekutik, hobekuntza-planetan eta ekintzetan hartu behar dute parte, bai eta aldizkako ebaluazio-sistemetan eta erakundearen beraren, zerbitzu-hartzaileen, pertsonen eta haiek inguruarekiko duten konpromisoen emaitza-adierazleak kanpotik alderatzeko prozesuetan ere.

Beraz, BAK denek ekintza-lerroak eta ahaleginak bateratzeko balioko du, eta Ikastolak onartuta eta Kode Etikoa deritzon dokumentuan azaltzen diren baloreak eta printzipioak eraginkorrak izan daitezten. Printzipio horiek, Hezkuntza Proiektuan zehaztutako balioekin batera, Urretxu- Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatibaren hezkuntza integraleko eredua osatzen dute.

Testu hau egiteko, arau-erreferentzia hauek hartu dira kontuan, batik bat: Hezkuntzari buruzko oinarritzko legedia, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-legedia, kooperatibei buruzko oinarritzko legedia, Lan-hitzarmen kolektiboa, eta Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza kooperatibaren errealitatea.

1.Kapitulua.-URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA KOOPERATIBAREN IZAERA

1. Artikulua.-Aplikazio-eremua

Barne Araudi hau (aurrerantzean, BA) Urretxu-Zumarraga Ikastola KOOP.E.rekin lotutako bazkide eta pertsona guztiei aplikatuko zaie, kooperatibarekin edozein harreman dutela ere, baldin eta harreman hori bat badator indarreko legehedapenekin, Jurisprudentziarekin, kooperatibaren Estatutu Sozialekin eta derrigorrez bete beharreko gainerako araudiekin

2. Artikulua.-Helbidea eta Izaera

Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba (Pagoeta kalea , 4 zenbakia, Gipuzkoako Lurralde Historikoa) Irakaskuntza Kooperatiba integrala da , Bazkide erabiltzaileek (gurasoak, lege-tutoreak, familiak...) eta langile, irakasle eta lanbazkideek sustaturikoa. 2008ko urtean, kooperatiba mistoan batzea erabaki zuten (kopiatu xede soziala Estatutuetatik)

. Irakaskuntza Kooperatibaren titularra hau da:

URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA, Kooperatiba Elkartea.

Kooperatibaren Batzar Nagusiak 19...(e)koren ...(e)an onartu zituen Kooperatibaren Estatutuak, eta 19...(e)koren ...(e)an erregistratu zituen Euskadiko Kooperatiben Erregistroko orrian, eta Kooperatiba Elkarteen Inskripzio Liburuko idazpenean. Kooperatibak legeek ematen dioten nortasun juridikoa du eta F-..... zenbakiko Identifikazio Fiskaleko Kodea du.

3. artikulua.-Irismena

- 1) Gaur egun, Irakaskuntza Kooperatibak Unibertsitatearen aurreko eskola-ikasketak ematen ditu, indarrean dagoen legediaren arabera; hain zuzen, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen ditu. Horretarako, Hezkuntza-, Unibertsitate-eta Ikerketa-sailburuaren baimena du, 19.....(e)koren(e)ko Aginduaren bidez (..... datako EHAAn argitaratu zen).
- 2) Irakaskuntza Kooperatibak jarduera osagarrien plan zabala sustatu eta garatzen du, ikasleen albait ondoen sozializa daitezen, eta ahalik garapen akademiko eta pertsonalik onena izan dezaten. Plan horrek eskola-jarduerak hartzen ditu barne, bai eta eskolaz kanpoko kirol eta kultura jarduerak ere. Horretarako, Irakaskuntza Kooperatibaren izaeran eta Hezkuntza Proiektuaren printzipioetan oinarrituta antolatuta eta kudeatzen dira.

Izan ere, kooperatibaren curriculum-garapenaren eta kudeaketa-planen zati dira,

baita kudeaketa-zerbitzua kanpoan kontratatzea erabakitzen denean ere.

- 3) Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatibak garraio eta jantoki zerbitzuak izan, eskaini eta sustatzen ditu, eta xede soziala ahalik ondoen lortzeko beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuk ere bai. Horretarako, Irakaskuntza Kooperatibaren izaeran eta Hezkuntza Proiektuaren printzipioetan oinarrituta antolatu eta kudeatzen dira. Izan ere, kooperatibaren curriculum-garapenaren eta kudeaketa-planen zati dira, baita kudeaketa-zerbitzua kanpoan kontratatzea erabakitzen denean ere.
- 4) Izaera eta xede soziala kontuan harturik, Irakaskuntza Kooperatibak zenbait programa eta ekimen garatzen ditu, bazkideen arteko lankidetzeta eta adiskidantza lortze aldera, eta familiek beren seme-alaben heldze, sozializazio eta hezkuntza prozesuetan ahalik hobekien esku har dezaten
- 5) 198... (e)koren (e)an, Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba LODEk ezarritako itunen erregimenean sartu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako xedapenen arabera (EHAAn/...../..... (e)an argitaratuak). Itunpeko ikastetxea den aldetik, ongintza-eta irakaskuntza-fundazioen parekotasun hartzen da; izan ere, fundazio horiei onartutako abantaila guztiak, fiskalak eta ez-fiskalak aplikatzen zaizkio ikastetxe mota horri, hezkuntza-jarduera dela eta egokitzen zaizkion abantaila guztiez gain (LODEren 50. artikulua). **Egun, itunen erregimena hezkuntza-maila hauetan aplikatzen da: Haur Hezkuntza, Lehen Mailako Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoan, Hezkuntza-maila horiek guztiak Aginduaren arabera daude eguneratuta. Agindu horren bidez, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015, 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko baldintzak arautzen dira.**

4. Artikulua.-Herri Onura eta Gizarte Ekimena

2..... (e)koren (e)an, “Herri Onurako Elkarte” eta/edo “Gizarte Ekimeneko Elkarte” izendatu zuten, 64/1999 Dekretuaren (herri-onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzen duena) eta/edo 61/2000 Dekretuaren (Gizarte Ekimeneko Kooperatibak arautzen dituena) arabera.

Bere jarduerak eta herri-onurak eta/edo bere gizarte-ekimenak duten gizarte-interesaren kontziente, kooperatiba-erakunde titularra bere izaera malgutasunez egokitzen ahaleginduko da, ingurunearen hezkuntza beharrei ahalik ondoen erantzuteko eta Euskadiko hezkuntza sistema hobetzen laguntzeko, harekin askatasunez elkartzea erabaki duten erakundeekin batera.

5. Artikulua.-Hezkuntza-proiektua eta curriculuma

- 1.- Ematen diren irakaskuntzak Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko legeetara egokituko dira funtsean, bai eta hezkuntzaren arloko eskumeneko agintarien orientabideetara ere. Dena den, horrek ez du Ikastolak bere hezkuntza-proiektua zehazteko eta garatzeko duen ekimen eta autonomia ahalmena murriztuko.
- 2.- Bere ibilbidean zehar, Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatibak, harekin batzea erabaki duten erakundeen laguntzarekin, curriculuma garatzen du, eta modu honetan bere Hezkuntza-proiektua ingurune hurbilean hobeto txertatzen du.

6. Artikulua.-Elkarteen arteko harremanak eta aliantzak

Ikastolak zenbait erakunderekin harreman berezia ezartzea erabaki zuen. Honako hauek dira erakunde horiek:

Ikastolen Kooperatiba (EHI), ERKIDE irakaskuntza, UNESCO Eskola Elkartuak Lurraldeko Ikuskaritza, Lurraldeko Berritzegunea, Urretxu eta Zumarragako udalak, Udal Euskaltegia, ingurugiro Eskolak, Bertso Eskola, Kontseilua...

2. Kapituluua.-IRAKASKUNTZA KOOPERATIBAREN XEDE SOZIALA

7. Artikulua.-Xede Soziala

Elkarteak erabaki du *bazkide erabiltzaileen [estatutuen arabera]* seme-alaben hezkuntzari era kooperatiboz aterabide ematea, bere ikastetxeen eta etorkizunean beste hezkuntza-erakundeekin batera sor ditzakeen ikastetxeen bidez, lukro xederik gabe eta Irakaskuntza kooperatibaren Estatutu Sozialen oinarritzko printzipioak orientatzen dituen hezkuntza pertsonalizatu eta kooperatiboaren ikuspegiaren arabera. Hona hemen printzipio horiek:

- a) Ikaslea ikasketa, heldutasun bidean eta sozializazio-prozesuen protagonista aktiboa izan dadin sustatzea, eta errespetatzea, orientatzea eta laguntzea, zuzenean eta familiekin elkarlanean.
- b) Ikasleen prestakuntza integrala. Hau da, haiei curriculum akademikoko ikasgai guztien edukiak emateaz gain, nortasuna garatzen lagundu behar zaie, baita, modu integralean, pertsona aske, arduratsu, trebe eta solidarioak izaten ere.
- c) Ikasleek euskara ikastea, hobetzea eta egunero erabiltzea da berariazko eta

oinarrizko helburuetako bat. Horretarako, hizkuntza horretan ikasiko dituzte curriculum akademikoko ikasgaiak, eta orobat, euskaraz emango dira Irakaskuntza Kooperatibaren eskolaz kanpoko jarduerak zein zerbitzu osagarriak eta orokorrak. Hala ere, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuko gainerako hizkuntzak behar bezala tratatuko dira, ikasleek lor ditzaten proiektu eleanitzeko hizkuntza-helburuetan zehaztutako komunikazio-gaitasunak.

- d) Ikastola ekipamendu didaktiko egokiez hornitzea eta haiek optimizatzea, eta metodo pedagogikoak eguneratuak izatea, bai eta eskola-planen eta -jardueraren hobekuntza kudeatzeko metodoak ere.
- e) Familiek beren seme-alaben eskola-prozesuetan lagundu eta parte har dezaten sustatzea. Horretarako, informazio-, prestakuntza-eta partaidetza-plan eta -programa espezifikoak erabiliko dira.

Hezkuntza-komunitateak helburu horiek bete nahi ditu. Horretarako, bere Hezkuntza Proiektu propioa garatu eta eguneratuko du, plan estrategikoetan eta ikastetxeko zein sail edo departamentu bakoitzeko urteko planetan zehaztutako atal garrantzitsuak nabarmenduz.

8. Artikulua.-Aniztasuna eta diskriminazio-eza.

Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba, pluralista denez, irekita egongo da haren izaera eta oinarrizko arauak onartzen dituzten guztientzat. Kooperatibak diskriminazio oro errefusatu, eta hura osatzen duten kide guztiak integratzea eta parte hartzea nahi du. Horretarako, elkarrizketa eta erantzukidetasuna sustatzen ditu.

9. Artikulua.-Etika-, moral-eta erlijio-heziketa.

Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatibak ikasleen etika-, moral-eta erlijio-heziketa zainduko du [erlijio-heziketari dagokionez, aukera hori hartu duten familien seme-alaben kasuan], eta denek moral-, etika-eta erlijio-prestakuntza dutela, eta kontzientzia-askatasuna errespetatuko du.

10. Artikulua.-Euskara eta euskal kultura.

Urretxu-Zumarraga Ikastola Irakaskuntza Kooperatibak, euskarari dagokionez, Euskaltzaindiaren arau eta jarraibideak hartuko ditu aintzat.

Halaber, Curriculum Proiektuan eta Urteko Planetan, euskal kulturako eta tradizioetako edukiak txertatuko dira .

ORGANO SOZIALAK

BATZAR OROKORRA

- *Ikus estutuak*

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

Artezkaritza kontseilua

Erakunde titularraren ordezkari ofiziala artezkaritza kontseilua da. Kooperatibaren Batzar Nagusiak aukeratzen du, Kooperatibaren Estatutu Sozialetan ezarritakoaren arabera bai eta haren lehendakaria ere.

Artezkaritza kontseiluko karquak aukeratzea eta banatzea.

Artezkaritza kontseiluko karguak Kooperatibaren Estatutu Sozialetan jasotakoaren arabera banatzen dira. Erakunde titularreko Artekaritza Kontseiluak egokitzat hartzen dituen batzordeak izendatu ahal izango ditu, eta haien eginbeharraren irismena zehaztu, hark ahalik ondoen egin ditzan bere funtzioak.

Artezkaritza Kontseiluaren funtzioak eta erantzukizunak.

Artezkaritza Kontseiluaren ahalmen erabakitzaileak Estatutu Sozialetan eta indarreko araudian jasota daude. Ondorengoak dira:

- a) Ikastolaren berezko identitatearekiko eta izaerarekiko errespetua bermatzea, eta indarreko legeek eta arauak itunpeko ikastetxeetako gainerako organoei eta hezkuntza-komunitateko kide guztiei esleitzen dizkieten eskubideak eta erantzukizunak errespetatzea.
- b) Honako hauek diseinatzea, ezartzea eta onartzea: antolaketa-eta kudeaketa-eredua; eta Zuzendaritzaren, Zuzendaritza Taldearen eta hura osatzen duten pertsona bakarreko gobernu-organoen egitura. Izan ere, beharrezkoa da Kooperatibaren eta Ikastetxearen jarduera profesionaltasunez, zorrotz eta eraginkortasunez kudeatzeko.
- c) Zuzendari orokorraren jarduera esparrua eta baldintzak, eta izendapena eta kargu-uztea diseinatzea. Titularraren zenbait ahalmen eta funtzio bere esku uztea, eta hari beharrezkotzat hartzen diren ahalmenak eta botereak ematea.
- d) Ikastetxeko zuzendari pedagogikoa izendatzea eta kargutik kentzea, Zuzendari Orokorraren proposamena entzun eta gero, Legeak Eskola Kontseiluari esleitutako esku-hartzeari kalterik egin gabe.

- e) Kooperatibaren jarduera antolatzea, zuzentzea eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusiari kooperatibaren Barne Araudia proposatzea, Legeak Eskola Kontseiluari esleitutako esku-hartzeari kalterik egin gabe.
- f) Pertsona bakarreko gobernu-organoen, eta Zuzendaritza Taldeko kideen jardueraren esparrua eta baldintzak diseinatzea, zuzendari orokorraren laguntzarekin.
- g) Kooperatibaren Misioa, Ikuspegia eta Balioak zehaztea, Zuzendaritzarekin eta Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean, Kooperatibaren izaerarekin eta Hezkuntza Proiektuarekin bat etorriz. Hobekuntza eta berrikuntza-planak kudeatzeko arauak eta eredia ezartzea, Kooperatibako esparru guztiei dagokienez.
- h) Zuzendaritza Orokorrarekin eta Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean, Hezkuntza Proiektuan orientazio orokorrak eta oinarritzko printzipioak adieraztea, eta haiek iraunaraztea, Kooperatibaren Batzar Nagusiaren aurrean aurkezte aldera.
- i) Kooperatibaren curriculumaren oinarritzko garapen-irizpideei jarraipena ematea (irizpide horiek plan estrategikoetan eta urteko planetan zehazten dira). Haiek ebaluatzea eta eguneratzea.
- j) Ikastolaren berezko izaera eta identitatea zein Hezkuntza Proiektua Eskola Komunitateari, Hezkuntza Administrazioari, bazkide izan nahi dutenei eta interesdun guztiei jakinaraztea, Zuzendaritzarekin eta Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean.
- k) Ikastetxearen kudeaketa ekonomikoaz arduratzea, indarreko araudiak zenbait ataletarako ezarritako beste partaidetza-organo batzuei emandako gaitasunei kalterik egin gabe, eta Batzarrari urteko kontuak aurkeztea.
- l) Zuzendaritzarekin elkarlanean, beharrezkoak diren inbertsio-planak egitea eta Batzarrari aurkeztea, onar ditzan. Betiere, inbertsio-plan horiek helburu hau izango dute: Kooperatibaren Hezkuntza Proiektua ahalik ondoen garatzeko eta plan estrategikoetan zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko azpiegituraz eta ekipamendu didaktikoez hornitzea.
- m) Eskumeneko Herri Administrazioarekiko hezkuntza-itunak izenpetzeko edo bertan behera uzteko, eta haiek sinatzeko eta iraungitzeko arauari buruz eztabaidatzea eta, egokia izanez gero, erabakitzea, indarrean dagoen legediaren arabera ikastetxea diru publikoz mantentze aldera, bazkideen Batzarrak emandako planei eta arauari jarraituz.
- n) Zuzendaritzarekin eta Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean, hezkuntza-mailak, eskola-unitateak, espezialitateak, irismen handiko berrikuntza pedagogikoko esperientziak eta kudeaketa hobetzeko esperientziak gehitu edo gutxitu behar diren aztertzea eta onartzea, bazkideen Batzarrak onetsitako planen eta arau orokorren arabera.
- o) Bazkideak onartzeaz eta haiei baja emateaz arduratzea, Kooperatibaren izaeraren eta Estatutu Sozialetan ezarritakoaren arabera. Prozesu horrek bat etorri behar du

ikasle berriak sartzeko prozedurarekin.

- p) Zuzendaritzarekin elkarlanean, beren lehentasuna adierazi, Ikastetxea aukeratu, eta haren Hezkuntza Proiektua eta izaera kooperatiba onartu duten ikasle berriak onartzeko prozesuaz arduratzea. Eta indarrean dauden legediaren eta arauen arabera, diskriminazio oro (jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonalagatik edo sozialagatik) alde batera uztea, derrigorrezko ikasketak emateagatik diru-kopuruak kobratzea edo ikasketei lotutako eta ikasleen familien ekarpen ekonomikoa behar duten derrigorrezko zerbitzuak ezartzea. Kategoria horretan, ez dira borondatezko jarduerak eta zerbitzuak sartzen, hala nola eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta eskola-zerbitzuak. Partaidetza-organoari prozesu horren emaitzaren berri ematea, indarreko legediaren arabera.
- q) Langileak kontratatzeko eta kaleratzeko ahalmen erabakitzaileak gauzatzea, betiere, lan-arloan ezarritako prozedurak eta indarreko legediak Eskola Kontseiluari emandako ahalmenak alde batera utzi gabe.
- r) Indarrean dagoen legediak zehaztutako ordezkaritza-eta partaidetza-organo gorenean Titularraren ordezkariak izendatzea: Eskola Kontseiluan edo antzekoetan.
- s) Bere ahalmen erabakitzaileak ikertzea, formulatzea eta gauzatzea, Barne Araudiaren proposamenari eta haren aldaketei dagokienez, kooperatibako Zuzendaritzarekin elkarlanean, Barne Araudia Batzar Nagusian aurkezteko, onar dezan:
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak. Bizikidetza Plana, eta neurri zuzentzaileen eta antzekoen trataera.
 - Irakasleen eskubideak eta betebeharrak.
 - Irakasleak ez diren langileen eskubideak eta betebeharrak.
 - Gurasoen eskubideak eta betebeharrak.
 - Eskolaz kanpoko jarduera-planak Kooperatibaren Hezkuntza Proiektuan eta Curriculum Proiektuan sartzeko, jarduera horien helburuak zehazteko, antolamendu-eta partaidetza-irizpide orokorrak ezartzeko, eta ebaluazioa egiteko arauak.
 - Zerbitzu osagarriak (garraioa, jantokia, udalekuak, truke-programak...) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan eta Curriculum Proiektuan sartzeko, jarduera horien helburuak zehazteko, antolamendu-eta partaidetza-irizpide orokorrak ezartzeko, eta ebaluazioa egiteko arauak.
- t) Zuzendaritzarekin eta Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean, ikasleentzako polizen, aseguruaren, laguntza-beken eta abarren estalduren formulak eta baldintzak aztertzea, zehaztea eta Batzar Nagusiari proposatzea, baita haien irismena ere, bai familian gertatutako ezbeharren kasuan (esaterako, ikasle baten aita, ama edo tutorea hiltzea edo elbarrituta geratzea), bai babestea merezi duten beste jazoera

batzuen kasuan. Haiek kudeatzea eta ebaluatzea.

- u) Ikastetxearen berezko izaera albait hobekien garatuko bada, eta xede soziala eta hezkuntza-proiektu berezitua albait hobekien lortu eta garatuko badira, beharrezkotzat hartzen diren erakundeekin elkartu edo haietatik bereizi beharra dagoen aztertzea, eta Batzar Nagusiari proposatzea.
- v) Ikastetxearekin batutako erakundeetan izango dituen ordezkariak ordezkatzera, Zuzendaritzaren laguntzarekin.
- w) Lankidetzaren kultura sustatzea eta, batutako erakundeekin batera, Hezkuntza Administrazioekin elkarlanean aritzea, inguruaren hezkuntza-eta gizarte-sustapena egiteko, eta Euskadiko hezkuntza-sistema hobetzeko. Eta araudiak egitean legeek irakaskuntza Kooperatibei aurreikusten dizkieten berezitasunak kontuan hartu eta irakaskuntza Kooperatiben ekarpenak aintzat har ditzaten. Esaterako, curriculumari, itunari, matrikulari, diru-laguntzei eta eskola-kontseiluei dagokienez.
- x) Indarreko legediak kooperatibetarako ezartzen dituen liburu sozialen ardurua hartzea: bazkideen erregistro-liburua, kapital sozialerako ekarpenen liburua, Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akta-liburuak, eta Kooperatiba Erregistroan erregistratutako guztiak, kontabilitate-liburuak eta indarreko legediak eskatzen dituen gainerako guztiak.
- y) Bazkideei diziplina-espedienteak irekitzea, eta dagokionean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari eta haren bitartekotasun-, adiskidetze-eta arbitraje-zerbitzuari (BITARTU) eskatzea Arbitraje Kooperatiboaren bitartez Kooperatibaren eta bazkidearen arteko gatazka konpon dezaten, baldin eta aukera hori Kooperatibaren estatutu sozialetan beren-beregi jasota badaude.
- z) Bazkideei lehiatzeko jarduerak egiteko eta jarduera horiek egiten dituztenekin elkarlanean aritzeko baimena ematea, betiere, jarduera horiek Kooperatibaren xede sozialarekin bat badatoz.

KOOPERATIBAKO PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

ZUZENDARI OROKORRA

Zuzendari orokorra, Kooperatibaren jarduera orokorra zuzentzeaz eta kudeatzeaz arduratzen da, atal guztietan, Estatutu Sozialen eta Artezkaritza Kontseiluak emandako arauei jarraituz. Hain zuzen ere, Artezkaritza Kontseiluak kargu hori izendatu eta haren harreman-esparrua zehazten du, indarrean dauden lege-xedapenen eta kargu horri dagozkion berariazko xedapenen arabera.

Zuzendaritza Taldeko kidea da, presidentea hain zuzen, eta animatu eta orientatzen du, titularrak haren esku utzitako eskumenen arabera.

Zuzendari Orokorraren betebeharrak eta erantzukizunak

Zuzendaritza Orokorraren betebeharrak eta erantzukizunak hauek dira:

- a) Oro har, kooperatibaren Estatutu Sozialen tituluan ezarritakoak.
- b) Artezkaritza Kontseiluaren arauen berri ematea eta arau horiek beteko direla bermatzea, bai eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan, Curriculum Diseinuan eta urteko planetan jasoko direla ere, atal guztiak kontuan harturik: irakaskuntza jarduerak, eskola-zerbitzu osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta arlo kooperatiboa.
- c) Ikastetxearen Berezko Izaeraren berri ematea, haren interpretazio ofizialean laguntzea, eta Hezkuntza Proiektuaren garapenean, eskola-lanean eta Ikastetxearen urteko planen arlo guztietan behar bezala aplikatzen dela zaintzea.
- d) Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean, Ikastetxean kalitatearen kudeaketaren kultura sustatzea, esparru guztietan. Ikastetxean eragina izan dezaketen aldaketa guztiak aztertzea (hezkuntzakoak, soziologikoak, ekonomikoak, legalak, etab.) eta erantzun-lerroak diseinatzea, Artezkaritza Kontseiluari aurkezte aldera. Artezkaritza Kontseiluarekin elkarlanean aritzea, Erakundearen Misioa, Ikuspegia eta Balioak zein plan estrategikoak zehazten eta eguneratzen. Auto ebaluazioa garatzea, eta prozesu giltzarrien emaitzak eta Ikastetxeak sektorean duen posizioa adierazle kuantifikagarrien bidez ezagutzea, arlo guztietan hobekuntza-eta berrikuntza-kudeaketari laguntzeko.
- e) Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean, Ikastetxearen urteko plana eta aurrekontua egitea, Artezkaritza Kontseiluari aurkezteko. Planak koordinatzea, etapakoak, zerbitzu osagarrien arlokoak, eskolaz kanpoko jardueren arlokoak, eta erakunde-eta kooperatiba-arlokoak bat etor daitezen. Gainera, urteko memoria eta kontuak egitea.
- f) Zuzendaritza Taldeko kideen, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen lanbide-prestakuntza eta eguneratzea sustatzea, eta horretarako berariazko planak

garatzea eta ebaluatzea.

- g) Informazioa eta Irakaskuntza Kooperatibaren komunikazio-planak euskarri dokumentalean eta digitalean antolatzea eta kudeatzea.
- h) Langileen ordezkariekin eta enpresa-batzordearekin beharrezkoak diren harremanak kudeatzea. Langileen eta ikasleen osasuna zaintzeko politika sustatzea, baita arriskuak prebenitzekoa ere.
- i) Bazkide eta ikasle berriak onartzeko eskaerak bideratzeko prozesuez arduratzea, Artezkaritza Kontseiluaren arauetara jarraituz, eta Estatutu Sozialetan eta indarreko araudian aurreikusitakoa uztartzuz.
- j) Araudi honen eta beste arau orokor batzuen interpretazioaren inguruan sortutako zalantzak argitzea, eta hori guztia dagozkion organoei jakinaraztea, alaitik bizkorren. Eta Barne Araudia eta beste barne-arau batzuk egiteaz, egokitzeaz edo aldatzeaz arduratzea, Artezkaritza Kontseiluari aurkezte aldera eta, dagokionean, Kooperatibaren Batzarrak onar ditzan; betiere, Legeak Eskola Kontseiluari eta Ikastetxeko beste organo batzuei ematen dizkien eskumenei kalterik egin gabe.
- k) Zuzendari Pedagogikoa ordezkatzeko, hori luzaroan ez dagoenean.
- l) Legeak betetzea eta betearaztea, bere eskumenean esparruan.
- m) Lankidetzaren kultura sustatzea eta Ikastetxeko kide guztiak ahalik ondoen integratzea daitezkeen saiatzea, bai elkarrekin bai ingurunearekin, jardueraren bitartez: ospakizun eta urteurren adierazgarriak, topaketak, elkar banatutako proiektuak eta trukeak.
- n) Eskola Kontseiluari urteko programazioa aurkeztea, onar dezan, alde aurretik Zuzendaritza Taldeak egin eta Artezkaritza Kontseiluak onetsi duen programazio hori. Gainera, urteko programazioaz gain, funts publikoen eta zerbitzu osagarriekin zein eskolaz kanpoko jarduerari dagozkien baimendutako kopuruen urteko aurrekontuak ere aurkeztu behar dizkio Eskola Kontseiluari, indarreko legeei jarraituz.
- ñ) Eskola Kontseiluari matrikula-prozesuaren eta haren emaitzen berri ematea
- o) Eskola Kontseilua eratzeko eta aldatzeko prozesua sustatzea eta koordinatzea, indarreko arauetara jarraituz eta Kooperatibaren ezaugarri bereziak kontuan harturik.
- p) Eskola Kontseiluari aurkeztea Artezkaritza Kontseiluak irakasleen plaza hutsak betetzeko onartutako irizpide orokorrak. q) LODEren 61. artikuluan aurreikusitako Adiskidetzaren Batzordean parte hartzea, egokia denean. r) eta Estatutu Sozialetan jasotako beste guztiak ...

Iraupena

Kooperatibarekin izenpetutako harreman-esparruan erabakitako denbora iraungo du Zuzendaritzaren agintaldiak. (4 urte)

Absentzia

Zuzendariak aldi baterako ez badu bere funtzioak egiterik, erakunde titularrak bere gain hartuko ditu haren funtzioak, bai zuzenean, bai Kooperatibako Zuzendaritza Taldeko kide baten bitartez, zuzendaria behin betiko itzuli arte.

ETAPETAKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOAK

Zuzendaritzako, koordinazioko eta buruzagitza akademikoko lana egiten duen pertsona Zuzendaritza Taldeko kidea da. Kooperatibaren Curriculum Proiektua eta eskola-lana zuzentzeko eta koordinatzeko ardura du, bai Eskola Kontseiluko presidente gisa eta/edo Hezkuntza Proiektuko Arduradun gisa. Hala ere, titularrak, Artezkaritza Kontseiluak eta Zuzendaritza Taldeko gainerako kideek beren eskumenei eutsiko diete.

Eskola Kontseiluak izendatzen du, titularrak proposatuta, Kooperatibaren Estatutuetan finkaturikoaren arabera eta indarreko legedian jasotako prozesuari jarraituz.

Artezkaritza Kontseiluaren eta Kooperatibako beste gobernu-eta kudeaketa-organo batzuen bileretara joango da, eskatzen badiote.

Iraupena

Zuzendaritza Pedagogikoaren agintaldiak indarreko legediak ezarritako denbora iraungo du, eta berri egin daiteke (4 urte).

Absentzia

Zuzendari pedagogikoak aldi baterako ez badu bere funtzioak egiterik, Zuzendari Orokorrak eta, dagokionean, erakunde titularrak beren gain hartuko dituzte zuzendari Pedagogikoaren funtzioak, bai zuzenean, bai Kooperatibako Zuzendaritza Taldeko horretarako bereziki izendatutako kide baten bitartez.

Kargu-uztea

Zuzendaritza Pedagogikoaz arduratzen den pertsonaren kargu-uztea gertatzen bada agintaldia amaitu baino lehen, beste pertsona bat aukeratu beharko da ardura hori behin-behinean izan dezan ikasturtea amaitu arte, horretarako ezarritako lege-prozedurari jarraituz. Hurrengo ikasturteari begira, Zuzendaritza horretan arituko den pertsona aukeratzeko, prozedura orokorrari jarraituko zaio.

Zuzendari pedagojikoaren betebeharrak eta erantzukizunak

Kooperatibaren proiektuan, honako hauek dira zuzendari pedagogikoaren funtzio nagusiak:

- a) Etapako hezkuntza-jarduerak zuzentzea eta koordinatzea
- b) Ekintza Pedagogikoak eta akademikoak tratatze aldera bilerak deitzea eta haietan buru izatea.
- c) Ziurtagiri eta dokumentu akademikoei oniritzia ematea.
- d) Zuzendari Nagusiarekin elkarlanean, Urteko Programazio Orokorra egitea. Horretarako Zuzendaritza Taldearen erabakiak eta akordioak kontuan hartu, eta kudeaketa-Taldean, Klaustroaren, Eskola Kontseiluaren eta abarren proposamenak entzungo ditu.
- e) Kide Anitzeko organoen akordioak gauzatzea bere ahalmen esparruan.
- g) Zuzendaritza Nagusiarekin lan egitea, besteak beste irakasleen eta pertsona bakarreko gobernu-organoen (zuzendariak, zuzendariordeak, etapako buruak...) izendapen-proposamenak egiteko. Proposamen horiek Kontseilu Errektoreari aurkeztea. Eta, orobat, zikloko koordinatzaileen eta irakaskuntza-zerbitzuetako gainerako arduradunen izendapena proposatzea.
- h) Kooperatibaren berrikuntza pedagogikoa eta didaktikoa sustatzea eta koordinatzea, eta zuzendari, zuzendariorde edo etapako buruekin batera, lantaldean funtzionamendua eta irakasleen arteko koordinazioa sustatzea eta kontrolatzea.
- i) Eskola-egutegia, eskola-ordutegia, ordena eta bizikidetzara-arauek betetzen direla zaintzea, Zuzendaritza Taldearen laguntzarekin.
- j) Tutoretza-jarduera sustatzea, bai eta ikasleen gaitasun, interes eta erritmoen aniztasunaren trataera ere. Errekuperazio-prozesuak koordinatzea eta kontrolatzea.
- k) Ebaluazio-bilerak deitzea eta haiek egiteko arauak ezartzea.
- l) Zuzendaritza Taldearekin eta dagozkion arduradunekin elkarlanean, Kooperatibaren eta Hezkuntza Proiektuan zehaztutako edukien hezkuntza-ekintza Kooperatiban egiten diren eskola-jarduera eta eskolaz kanpoko jarduerak guztietara zabaltzen dela bermatzea. Prozesu hori ebaluatzea eta hura hobetzeko planak diseinatzea.
- ll) Etapa-kudeaketako taldeen bileretara joatea eta haietan parte hartzea (behintzat, orientazio pedagogikoko, programazioko eta ebaluazioko bilerak). Gainera, Zuzendari Nagusiarekin batera, eskolaz kanpoko jardueren eta zerbitzu osagarri nagusien kudeaketa-taldean bileretara joatea.
- M) Bizikidetzara ona izaten laguntzea eta Kooperatiban ikasleen diziplinaren arloan

sortzen diren gai larriak ebaztea, indarreko legediaren arabera (Ikus lege-erreferentziak: 201/2008 Dekretua, Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa, (50. artikuluko 3. eta 4. paragrafoak, 63. artikuluko 3. idatz zatia).

- n) Zuzendaritza Taldeari Kooperatiban zer testuliburu erabili proposatzea. Testuliburu horiek aukeratzerakoan, Kooperatibaren Berezko Izaera eta Hezkuntza Proiektua kontuan hartu, irizpide objektibo eta egiaztagarrietan oinarritu, eta ziklo edo sail didaktikoetako irakasle-taldeei kontsultatuko die.
- ñ) Ikasleen ikasketa aktiboa garatzeko behar diren curriculum-material eta baliabide didaktiko eguneratuak lortzen laguntzea. Saitetako zuzendarien laguntzarekin, irakasleei material eta baliabide horiek ahalik hobekien erabiltzen eta aprobetxatzen laguntzea, eta ebaluazioa egitea.
- o) Erakunde titularrak zuzendari orokorraren bitartez emandako gainerako funtzioak bere gain hartzea.

Funtzio horietako batzuk beste kudeaketa-organo batzuen esku utz ditzake, egokia bada eta zuzendari orokorra ados badago.

38. Artikulua.-Etapako zuzendariak, ikasketaburuak edo etapako buruak eta administratzaileak.

1.- Irakaskuntza Kooperatiban, etapako zuzendariak edo ikasketaburuak edo etapako buruak arduratu behar dute ezarritako gobernu-unitate bakoitzaren (hezkuntza-etapa batekin edo gehiagorekin bat datorrena) zerbitzu integralak egunero garatzeaz, Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Taldeak ezarritako esparruan eta emandako arauari jarraituz. Gainera, dagokien idazkaritza-arloaren, dauden higiezinaren eta eskaintako zerbitzu komunaren ardura dute.

Etorkezinari begira, Kontseilu Errektoreak arlo horiek berriro zehaztu edo beste batzuk sor ditzake, xede soziala hobeto lortze aldera, Ikastetxeak izaera dinamikoak eta etengabeko erronkak dituela kontuan izanik.

Etapako Zuzendaritzak/Koordinazioak pertsona bakarreko gobernu-organoak dira. Pertsona horiek Zuzendaritza Taldean daude, beren eskumena dela eta. Gobernu-unitate bakoitzak funtzionamendu autonomoa du, betiere, Zuzendaritza Nagusiaren arauari eta Zuzendaritza Taldeak adostutako orientazioak jarraituz.

Zuzendaritza bakoitzean diharduen pertsonak hartaz arduratu behar du, bai eta ikasleei haren bidez eskaintzen zaizkien zerbitzu integratuen egunero garatzeaz ere. Zuzendaritzaren eta/edo Zuzendaritza Tekniko, Akademiko eta/edo Pedagogikoaren aurrean du ardura hori.

Erakunde titularraren izenean egiten du bere zeregin profesionala edo jarduera espezifikoa, eta Erakundearen Politikarekin eta Estrategiarekin bat etorriz.

2.-Kooperatibako Administratzaileak Kooperatibaren esparru ekonomikoa eta

administratiboa kudeatu behar du egunean-egunean, eta kudeaketa horren ondorioz sortzen diren eginbeharrak garatu eta bete.

Pertsona bakarreko gobernu-organoa da eta Zuzendaritza Taldean dago, bere eskumena dela eta, baldin eta zeregin hori zuzendari nagusiak/zuzendari kudeatzaileak, administratzaile nagusiak eta abarrek egiten ez badute.

Administrazio-funtzioak dituen pertsonak haren esku utzitako funtzio ekonomikoen eta administratiboen eguneroko garapenaz arduratu behar du. Zuzendaritzaren aurrean du ardura hori.

Erakunde titularraren izenean egiten du bere zeregin profesionala edo jarduera espezifikoa, eta Erakundearen Politikarekin eta Estrategiarekin bat etorriz, eta Administrazio eta Zerbitzu Arloko langileen laguntzarekin.

39. Artikulua.-Izendapena eta jarduera-esparrua.

Etapako Zuzendaritzan edo Koordinazioan diharduen pertsona Etapako Kudeaketa Taldeko (*ikus Gida honen 64. artikulua*) edo haren ardurapena utzitako taldeko burua da. Kontseilu Errektoreak izendatzen du, Zuzendaritzak proposatuta, Zuzendaritza Taldearekin eztabaidatu ondoren eta Kontseilu Errektorearekin adostutako prozedurari jarraituz, kasuan-kasuan. Haren lanak jarduera eta onspen espezifikoaren esparrua izango du, Kontseilu Errektoreak adostuta.

1 Artikulua.-*Etapako zuzendarien eta ikasketaburu edo etapako buruen erantzukizunak eta betebeharrak*

2 Artikulua.-*Funtsezko arloko arduraduna*

Funtsezko arlo bateko arduraduna eta zuzendaria da. Kooperatibaren xede soziala eta/edo beren-beregi zehaztutako proiektu bat lortzeko arlo estrategikoa da funtsezko arlo bat.

Kontseilu Errektoreak eta Zuzendaritzak funtsezkotzat edo erabakigarritzat hartutako arlo jakin bat kudeatu, koordinatu eta hobetu behar du; alde batetik, Ikastetxearen erronka estrategikoei erantzuteko, eta beste batetik, Kooperatibaren Hezkuntza Proiektuaren eta zerbitzuen kalitatearen bereizgarria bermatzeko. Esaterako, honako hauei dagokienez: eskolaz kanpoko jardueri; berrikuntzari; irismen handiko zerbitzu eta arloak berriro diseinatzeari, edo zerbitzu eta arlo berriak diseinatzeari; eta Irakaskuntza Kooperatibaren Misioaren, Ikuspegiaren eta Balioen edukiari

42. Artikulua.-*Izendapena eta kargu-uztea*

Arloko edo proiektuko arduraduna Kontseilu Errektoreak izendatzen du, Zuzendaritzak Zuzendaritza Taldeari entzun ondoren proposatuta. Kargua utziko du, plan edo proiektu espezifikoak egiteko adostutako epea amaitutakoan.

Zuzendari nagusiaren aurrean izango da bere erantzukizunaren garapenaren erantzulea. Zuzendari nagusiak kargu-uztea zein luzapena proposa diezaiolke Kontseilu Errektoreari.

Haren lanak jarduera eta onespenez espezifikoaren esparrua izango du, Kontseilu Errektoreak adostuta.

3. Kapituluak.-IRAKASKUNTZA KOOPERATIBAKO KIDE ANITZEKO GOBERNU ORGANOA

ZUZENDARITZA TALDEA

÷

44. Artikulua. Zuzendaritza Taldea

Zuzendaritza Taldea beharrezko gobernu-organoa da, honako hauek kontuan hartuta: Irakaskuntza Kooperatibaren ezaugarriak, haren Hezkuntza Proiektuaren edukia, haren garrantzia eta eskaintako hezkuntza integraleko zerbitzuen konplexutasuna. Horren guztiaren ondorioz, behar-beharrezkoa da gobernu-erantzukizunak banatzea eta talde-lanean aritzea.

Kudeaketa integraleko ohiko organoa da Zuzendaritza Taldea, eta bi helburu hauek ditu bereziki: Ikastetxearen ohiko funtzionamenduaren erantzukide izatea eta haren hezkuntza-ekintza orokorra bultzatzea.

Zuzendaritza Taldeko kideek titularraren izenean gauzatzen dute beren erantzukizuna, arduraren pertsonal bereziarekin, beren karguaren eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektu integralarekin duten konpromisoaren ondorioz.

Zuzendari Nagusia da Zuzendaritza Taldearen eraketaren eta funtzionamenduaren arduraduna, erakunde titularraren izenean.

45. Artikulua.-Zuzendaritza Taldearen osaera

Urretxu-Zumarraga Ikastola Kooperatibako Zuzendaritza Taldeko kideak hauek izan daitezke, zuzendaria, Etapetako arduradun pedagogikoak eta administrazio arduraduna

46. Artikulua.-Funtzionamendua

Zuzendaritza Taldearen bileretan honako hauek izango dira buru: ikastetxeko zuzendari nagusia edo administratzaile nagusia eta zuzendari pedagogikoa, horren eskumenen arabera. Haiek arduratu beharko dute gai-zerrenda egiteaz, edukiak zuzen dokumentatzeaz eta ondorioak idatziz jasota geratzeaz.

Zuzendari nagusiak edo administratzaile nagusiak parte hartzeko baimena eman diezaieke Irakaskuntza Kooperatibako hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei, baldin eta, jorratu behar diren gaiak direla medio, komenigarria bada.

Zuzendaritza Taldeak ohiko lan-saioak egingo ditu, astean behin, gutxienez ere talde horretako bi kidek egokitzat jotzen badute edo eskatzen badute.

Ahal izanez gero, Zuzendaritza Taldeak behar bezala dokumentatuko ditu proposamenak, eta datu eta ebidentzia objektiboetan oinarrituko. Gainera, elkarrizketaren bidez eta iritzia alderatuz hartuko ditu erabakiak, ahal dela denen adostasunez edo, horrelakorik ezean, kideen gehienen aldeko botoarekin.

47. Artikulua.-Zuzendaritza Taldearen funtzioak

Honako hauek izan daitezke, baina ez dira derrigorrez hartzekoak:

- a) Kide bakoitzaren erantzukizun-esparrutik, urteko planak eta memoriak egitea eta koordinatzea, bai eta haien hiruhilekoko jarraipenak ere, eta Kontseilu Errektoreari aurkeztu beharreko beste edozein gai.
- b) Urteko programazio akademikoa prestatzea, bai eta Kontseilu Errektoreari aurkeztu beharreko gai guztiak ere, onar ditzan, Eskola Kontseiluari dagozkion ataletan.
- c) Irakaskuntza Kooperatiban eta haren kideengan eragina izan dezaketen ingurune-aldaketak aztertzea. Eta Kooperatibaren Izaera eta Ibilbidea kontuan harturik, eta erakunde titularrarekin eta Kontseilu Errektorearekin bat etorritik, egokitzapenak edo erantzunak diseinatzea, Kontseilu Errektoreak edo erakunde titularrak aztertu eta onar ditzan.
- d) Hezkuntza Proiektuaren eguneratzea aztertzea, eta Kontseilu Errektorearen arauak jarraituz, Curriculum Proiektua eguneratzea eta urteko plan zein programetan gauzatzea, ziklo eta arlo guztietan. Curriculum Proiektuarekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak, administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak ere gauza behar ditu plan eta programa horietan..
- e) Urretxu-Zumarraga Ikastolako informazio-planak koordinatzea, eta Ikastolako sektore guztien arteko komunikazioa eta integrazioa sustatzea.
- f) Ikastolako urteko planen eta plan estrategikoen emaitza orokorrak sistematikoki aztertzea, eta haien hiruhilekoko jarraipena egitea. Ingurunea eta sektorea kontuan izanda kooperatiba zein egoeratan dagoen jakitea, eta, barruko zein inguruko jardunbide onak kontuan harturik, hobekuntza-lerroak martxan jartzea.
- g) Ikastolako esparru guztietako arduradunekin batera, kalitatearen kudeaketaren kultura hedatzen laguntzea. Erakundearen autoebaluazioa garatzea eta etapa edo

sail bakoitzeko prozesu giltzarriak zein diren jakitea, adierazle kuantifikagarrien eta erreferentzia objektiboen bidez. Kanpo-ebaluazioak eta irakasle zein gainerako langileenak ere hartuko dira kontuan. Horren guztiaren helburua da ahalik ondoen kudeatzea, kooperatibaren politika estrategikoarekin bat.

- h) Ekintza-planak eta -lerroak sustatzea, bultzatzea eta koordinatzea, Ikastolaren hezkuntza-jarduera, metodologia didaktikoa eta kudeaketa eguneratze aldera.
- i) Jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko jardueren planak sustatzea, bultzatzea eta koordinatzea, kooperatibaren izaerarekin eta Hezkuntza Proiektuarekin bat etorritik.
- j) Ikastetxean bizikidetzak sustatzea, gatazkek konpontzeko bitartekotza bermatzea, eta Zuzendaritza Pedagogikoarekin elkarlanean aritzea, ikasleei dagozkien diziplinazko neurriak ezartzeko, indarrean dagoen araudia betetz.
- k) Familia, erakunde eta organismoekiko elkarlana bultzatzea, ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana ahalik onena izan dadin. Ikasketa errazteko eskola-giroa sustatzea. Heziketa integrala, ikasketa aktiboa eta ikasleen sozializazioa ahalbidetuko dituzten testuinguruak eta egoerak garatzea, Kooperatibaren Hezkuntza Proiektuari jarraituz.
- l) Zuzendari nagusiari eta Arduradun pedagogikoari aholku ematea, zikloko koordinatzaileak, mintegiko buruak eta beste arduradun batzuk izendatu behar direnean. Eta haiek beren zereginean indartzeko eta haiei laguntzeko ekimenak zehaztea eta koordinatzea.
- m) Besteak beste, tutoretzak zein irakasleak esleitzeko eta ikasle-taldeak banatzeko zuzendariak, edo koordinatzaileak jarraitu beharreko irizpideak zehaztea eta koordinatzea.
- n) Testuliburuak eta ikasgeletarako beste baliabide pedagogiko batzuk aukeratzeko irizpideak zehaztea. Sailen edo etapa-taldearen proposamenak aztertzea eta, dagokionean, onestea.
- o) Zuzendari nagusiari aholku ematea eta hari laguntzea lan-harremanen esparruan: - Langileen ordezkariarekin negoziatzeko. Arriskuak Prebenitzeko Planak egiteko. - Metodologiak eguneratzeko, langileei prestakuntza emateko, eta igotzeko edo onespina emateko planak egiteko. Langileak kontratatuzko eta kargutik kentzeko.
- p) Ikastolaren eta haren aktiboen funtzionamendu integrala orekatua eta eraginkorra dela ikuskatzea eta koordinatzea, oro har eta esparru guztietan. Eta, dagokionean, hura hobetzeko neurriak proposatzea Zuzendaritza Nagusiari eta Kontseilu Errektoreari.
- q) Ikastetxeko gai larriak lehen auzialdian ebaztea.

ESKOLA KONTSEILUA

48. Artikulua.-*Eskola Kontseilua*

Hezkuntza-komunitateko kideek parte hartzeko organoa da Eskola Kontseilua. Hari esker, Ikastetxearen kudeaketan har dezakete parte, bai eta Administrazioak emandako funtsen eta indarreko legediak baimendutako diru-kopuruen kontrolean ere.

Kide anitzeko gobernu-organoa da, hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak ordezkatzeko dituen.

Eskola Kontseiluaren bidez, hezkuntza-komunitateko kideek Ikastetxearen kudeaketan eta kontrolean hartzen dute parte. Gainera, funtzio hau ere dagokio: ikasleen, haien gurasoen, irakasleen, irakasleak ez diren langileen eta erakunde titularren eskubideak errespetatzen direla eta nor bere betebeharrak betetzen dituela bermatzea.

49. Artikulua.- Osaketa / Eraketa / Funtzioak

1.-Eskola kontseilua Kide hauez egongo da osatuta:

- Zuzendari Pedagogikoa
- Ikastolaren hiru ordezkari, Kontseilu Errektorean izendatuak.
- Udalerrietako Udaleko zinegotzi edo ordezkari bat (Urretxu-Zumarraga)
- Irakasleen lau ordezkari.
- Ikasleen gurasoen edo tutoreen lau ordezkari, eurek euren artean aukeratuak.
- Ikasleen bi ordezkari, eurek euren artean aukeratuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen mailatik aurrera.
- Administrazioako edo zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

2.-Eraketa.-Indarrean dagoen legediaren arabera eratuko da, hau da, eratu eta gero gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuko duen hezkuntza-neurriak bultzatzeko pertsona bat izendatuko du.

3.-Eskola Kontseiluak legeak jasotzen dituen funtzioak izango ditu. Hain zuzen ere honako hauek izango ditu:

- a) Ikastetxeko zuzendari pedagogikoa izendatzen eta kargutik kentzen parte hartzea, LOEren 59. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Ikastetxeko irakasleak aukeratzeko eta irazten parte hartzea, LOEren 60. artikuluen arabera.
- c) Ikasleak onartzeko prozesuan parte hartzea eta prozesu hori hari buruzko arauekin bat datorrela bermatzea.
- d) Diziiplina-gatazken ebazpenaren berri izatea eta gatazka horiek indarrean dagoen araudiaren barruan bideratzeaz arduratzea. Zuzendariak hartutako diziiplina-neurriek ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten ikasleen jarrerekin zerikusia badute, Eskola Kontseiluak, gurasoek edo tutoreek eskatuta, hartutako erabakia berrikusi eta, hala badagokio, bidezkoak diren neurriak proposatu ahal izango ditu.
- e) Titularrak hala proposatuta, Ikastetxeko aurrekontua onestea, Administrazioetik

etorritako funtsei nahiz baimendutako kopuruei dagokienez, bai eta urteko kontu-ematea onestea ere.

f) Zuzendaritza Taldeak urtero egingo duen programazio orokorra onartzea eta ebaluatzea.

g) Administrazioari ikasleen gurasoei eskola-jarduera osagarriak egiteagatik kobratzeko baimena eman dezan proposatzea.

h) Ikastetxeko lerro pedagogikoaren aplikazioan parte hartzea, eta eskola-jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola-zerbitzuak programatzeko eta garatzeko arauak egitea. Eskola-zerbitzuei dagokienez, Hezkuntza Administrazioak ezarritakoari jarraitzea.

i) Dagokionean, titularrak hala proposatuta, ikasleen gurasoek eskolaz kanpoko jarduerengatik eta eskola-zerbitzuengatik egin beharreko ekarpenak onestea, baldin eta Hezkuntza Administrazioak baimena eman badu.

j) Ikastetxeak kultura-, kirol-eta olgeta-jardueretan zein ikastetxeak lagun ditzakeen asistentziatzko ekintzetan parte hartzeko irizpideak ezartzea.

k) Beste ikastetxe batzuekin lankidetzaharremanak ezartzea, kultura-eta hezkuntza-xedeekin.

l) Titularrak hala proposatuta, ikastetxeko barne-araudia onestea.

m) Administrazio-eta irakaskuntza-alderdiei dagokienez, ikastetxearen martxa orokorra ikuskatzea.

n) Ikastetxeko elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta gatazken konponbide baketsua –bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta sozialaren eremu guztietan bultzatzeko neurriak eta ekimenak proposatzea.

50. Artikulua.-*Kideak aukeratzea*

Eskola Kontseiluko kideen (irakasle, guraso eta ikasleak) hautapena dagokion administrazio-prozeduraren bidez hasi eta jakinaraziko da. Prozedura horretan, hauteskunde-prozesuaren publizitatea eta objektibotasuna bermatu beharko da, bai eta hezkuntza-komunitateko kideen botoa pertsonala, zuzena, berdina eta sekretua dela ere.

51. Artikulua.-*Funtzionamendua*

Eskola Kontseiluaren bilerek funtzionamendu-arau orokor hauek izango dituzte oinarri:

a) Eskola Kontseiluko buru den Zuzendaritzak deituko du bilera, eta buru izango da. Zuzendaritzak deialdia, gai-zerrenda eta behar den dokumentazioa prestatu eta Eskola Kontseiluko kideei helaraziko dizkie, gutxienez ere hiru eguneko aurrerapenez. Larrialdi-egoeretan, 24 orduko aurrerapenez deitu ahal izango du Eskola Kontseiluaren bilera. Gai-zerrendan ez dauden gaiak ukitzeko, bertaratutakoen bi herenen oniritzia beharko da.

b) Idazkari diharduen pertsonak bileraren akta idatziko du.

c) Bilerara kideen erdia gehi bat bertaratzen badira, behar bezala eratuta egongo da Eskola Kontseilua.

d) Eskola Kontseiluak gai-zerrendako gaiak aztertuko ditu, titularrak edo Zuzendaritza

Taldeak horretarako prestatutako dokumentazioaren laguntzarekin. Erabakiak aho batez hartzen ahaleginduko da, elkarrizketaren bidez eta iritzia alderatuz. Egokia denean, kide guztien aldeko botoarekin hartuko dira akordioak. Bozketak isilpekoak izango dira, bertaratutako kide guztiek unean-unean kontrakoa erabaki ezean.

- e) Kide guztiek izango dute boto partikularrak aditzera emateko eskubidea, eta boto horiek idatziz jasoko dira.
- f) Bileraren akta hurrengo bileran onetsiko da, eta Idazkariak sinatuko du, presidentearen oniritziarekin.
- g) Presidente ahaleginduko da hezkuntza-komunitateko estamentu guztiek jaso dezaten Eskola Kontseiluan tratatutako gaiei buruzko informazioa.
- h) Bertaratutako guztiek zuhurtziaz eta isiltasunez jokatu dute, Eskola Kontseiluak hartutako erabakiei dagokienez.
- i) Etapako zuzendari edo buru bat aukeratuko da Eskola Kontseiluko Idazkaria izan dadin, eta ezin izango du ez hitz egin ez bozkatu. Lan horretan, Administrazioak horretarako izendatutako pertsona baten laguntza jaso ahal izango du, betiere, Zuzendaritzaren oniritziarekin. Bilera guztien akta egingo du. Hurrengo bileran egokiak diren zuzenketak egiteko eskubidea egongo da. Idazkariak akta sinatu eta haren fede emango du, zuzendariaren oniritziarekin. Idazkaria ez balego, Eskola Kontseiluak horretarako izendatutako kide batek jardungo du haren ordez.

52. Artikulua.-*Bilerak*

Eskola Kontseiluak hiru hilean behin egingo du ohiko bilera, ikasturtean zehar. Presidenteak egokitzat joz gero, Eskola Kontseiluak ezohiko bilera egingo du, bai eta erakunde titularrak edo Eskola Kontseiluko kideen bi herenek eskatuta ere.

53. Artikulua.-*Premiazko deialdia*

Eskola Kontseiluaren eskumeneko gai bat premiaz joratu behar bada eta bilera deitzeko denborarik ez badago, Zuzendaritza Taldeak egokitzat uste duen moduan jardungo du. Ondoren, hartutako erabakiaren berri emango dio Eskola Kontseiluari, hura berrets dezan.

14.-LANGILE BATZARRA

54. Artikulua.- *Definizioa*

Ikastolako langileria biltzen duen organo kolegiatua da.

55. artikulua.- *Konposaketa*

Kooperatibistek, langile finkoek eta urtebeteko kontratua dutenek osatzen dute Langile Batzarra.

56. artikulua.- *funtzioak*

- 1) Ikastolaren eginbide nagusiaren inguruko informazioa jaso.
- 2) Urteko aurrekontu ekonomikoa eta aurreko ekitaldiaren egoera ekonomikoaren memoriaren inguruko informazioa jaso, Batzar Orokorra egin baino lehen.
- 3) Gida Batzorderako langile ordezkariak izendatu, horretarako erabakitako prozedura erabiliz (ondoren zehaztuko dena).
- 4) Gida Batzordeak edo bertako langileek aurkeztutako edozein gairi buruzko erabakiak hartu.
- 5) Langileriaren inguruan sor daitezkeen edozein arazoren inguruan iritzia eman.
- 6) Eskola egutegia proposatu.
- 7) Langileen egutegi laborala Zuzendaritza taldeari proposatu.
- 8) Idazkaria izendatu.
- 9) Ikastolako urteko plana onartu eta horren garapena ezagutu eta ebaluatu.
- 10)

57. artikulua.- *Funtzionamendua*

- 1) Langile Batzarra urtean bi aldiz bilduko da gutxienez irailean banatutako urteko planean alde zuzen izendatutako egunetan bai eta langileriaren heren batek hala eskatzen duenean.
- 2) Bertan hartutako erabakiak bildutako botoen gehiengo arruntez onartuko dira, bozketa ezkutukoa izango delarik.
- 3) Norbaitek etortzerik izango ez balu, bere botoa beste pertsona batek ordezkatu ahal izango du. Pertsona batek ezingo du bi boto ordezkatu baino gehiago bilerara eraman. Boto idatzi horretan ordezkatuaren izena jarri beharko da.
- 4) Hartzen diren erabakiak lotesleak izan daitezkeen quoruma ezinbestekoa da. Quoruma horrela ulertzen da: bileraren lehen deialdian kidegoaren bi herenak behar dira bilera hasteko. Bigarren deialdian, ordea, kidegoaren erdia gehi bat. Bi deialdien artean hamar minutu gordeko dira.
- 5) Bilerak, gehienez, bi ordu iraungo ditu.
- 6) ...

15.-LANGILE ORDEZKARIAK

58. artikulua.- *Definizioa:*

Gida Batzordekide izan, hari dagozkion funtzio guztiak bete eta langileriari dagozkion gaiak kudea ditzan, Langile Batzarrak hautatzen duen lan taldea da.

59. artikulua : *Konposaketa*

Ikastolako Gida Batzordea parekidea da eta, kooperatibaren estatutuetan 12 kidez osatuta dagoen organoa dela adierazten duenez, Langile Batzarrak 6 ordezkari hautatuko ditu, 2 Haur Hezkuntzan, 2 Lehen Hezkuntzan eta 2 DBH eta Batxilergoa.

60. artikulua. *Funtzioak*

- 1) Zuzendaritza Taldeak eta Zuzendariak prestatutako planak onartu eta beraien betekizuna kontrolatu.
- 2) Kontratazio Batzordean parte hartu eta sor daitezkeen arazoengatik inguruan iritzia eman.
- 3) Langile Batzarra deitu eta bideratu.
- 4) Greba deialdiak zabaldu, bozketa antolatu, emaitzak jakinarazi.
- 5) Behar izanez gero zerbitzu minimoak antolatu, Zuzendariarekin batera.
- 6) ...

61.artikulua.- *Langile ordezkariak hautatzeko prozedura*

- 1) Langile Batzarrak zozketaz izendatuko ditu langile ordezkariak, etapa guztiak ordezkaturik daudela bermatuz .
- 2) Kargua 2 urterako izango da, urtero erdia berrituko delarik.
- 3) Hautagaiak kooperatibistak, langile finkoak eta errelebo kontratua dutenak izan daitezke.
- 4) Zozketa egiteko garaian hiru kaxa jarriko dira, etapak bereiziz.

62. artikulua.- *Konposaketa:*

6 ordezkari: 2 Haur Hezkuntzan, 2 Lehen Hezkuntzan eta 2 DBH eta Batxilergoa.

63. Artikulua.-*Irakasleen Klaustro Orokorra*

Ikastolako irakasleek parte hartzeko organoa da Irakasleen Klaustroa. Zuzendaritza, Etapako Saileko Zuzendaritza edo eskuordetutako pertsona izango da burua. Ikastolan eskola ematen duten irakasle titular guztiak dira kideak.

Ikastolaren tamaina eta funtzionamendu-dinamika kontuan harturik, Etapako

Klaustroak egin ahal izango dira, Zuzendaritzak hala erabakita. Etapako Klaustroak Klaustro Orokorraren antzeko funtzioak izango ditu, ikasgaien premien arabera beharrezkoa bada

64. Artikulua.-*Funtzionamendua*

Irakasleen Klaustro Orokorraren bilerek funtzionamendu-arau hauek izango dituzte oinarri.

- a) Zuzendari Orokorrak edo Zuzendaritza pedagogikoak bilerak deitzen ditu eta haien buru da. Deialdia behar besteko aurrerapenez egingo da, eta gai-zerrenda erantsiko zaio.
- b) Zuzendaritzak Pedagogikoak izendatuko du bilerako Idazkaria. Idazkariak egindako bileraren akta hurrengo bileran onartu eta Zuzendaritzaren ontzat emana jaso beharko du.
- c) Zuzendaritzak hezkuntza-gaietako adituak edo egoki deritzon pertsona gonbidatu ahal izango ditu bileretan parte hartzera, aholkulari gisa.
- d) Ahal izanez gero, erabakiak aho batez hartu beharko ditu Klaustroak. Egokia denean, kide guztien aldeko botoarekin hartuko dira akordioak, eta bozketak isilpekoak izango dira. Berdinketa gertatuz gero, Zuzendaritzaren botoa ebazlea izango da.
- e) Bilerek gai-zerrendari jarraituko diote, eta irakasleren batek Klaustroaren eskumeneko beste gai batzuk ukitzea proposatzen badu, beharrezkoa izango da bertaratutako guztiak ados egotea.
- f) Klaustroko Idazkariak bileraren akta egingo du, eta, hurrengo bileran, ontzat eman beharko dute kideek. Zuzendaritza Pedagogikoaren oniritzia behar du aktak.

65. Artikulua.- Klaustroaren funtzioak

Irakasleen klaustroak honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza taldeari eta Eskola Kontseiluari Ikastolaren proiektuak eta urteko programazio orokorra lantzeko proposamenak egitea.
- b) Curriculumean Hezkuntza Proiektuaren eduki orokorren etapak eta zikloak zehazteko modua onartzea, Zuzendaritza Taldearen arauari jarraituz, eta haiek ebaluatzea, bai eta urteko programazio orokorraren hezkuntza alderdi guztiak, zein eskolaz kanpoko jardueren eta zerbitzu osagarrien atalak ere.
- c) Zuzendaritza Taldearen arauak betez, ikasleen orientabideari, tutoretzari, ebaluazioari eta errehabilitazioari buruzko irizpideak finkatzea.
- d) Esperimentazioaren eta ikerketa pedagogikoaren eremuan eta Ikastolako irakasleen prestakuntzan ekimenak sustatzea, diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, Ikastolaren planaren arabera, Zuzendaritza Taldearen arauari jarraituz, kasuan kasu.
- e) Eskola Kontseiluko kideak aukeratzea eta Zuzendari Pedagogikoaren aukeraketan parte hartzea, araudian ezarritako baldintzetan.

- f) Hautagaiak aurkeztutako zuzendaritza proiektuak ezagutzea.
- g) Ikastetxearen funtzionamendu orokorra, eskola-errendimenduaren bilakaera eta ikastetxearen parte-hartzea duten barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak aztertzea eta balioestea, hobekuntza-ekimenak martxan jartzeko.
- h) Ikastetxearen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauen berri ematea.
- i) Diziplina-gatazken ebazpenaren eta jarritako zigorren berri izatea, eta zigor horiek –bai eta datu pertsonalen babesari dagozkionak ere– indarrean dagoen araudiaren barruan bideratzeaz arduratzea.
- j) Ikastetxeko elkarbizitza hobetuko duten neurriak eta ekimenak proposatzea.
- k) Hezkuntza Administrazioak edo antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak esleitutako guztiak

66. Artikulua.-*Bilerak*

Irakasleen Klaustroa urtean hiru aldiz bilduko da gutxienez ere, eta haren kideen bi herenek Zuzendaritzari eskatzen dioten bakoitzean. .

67. Artikulua.-*Etapako Klaustroaren funtzioak eta eskumenak*

Etapako Klaustroaren funtzioak eta eskumenak honako hauek dira:

- a) Etapako ziklo eta sailen irakaskuntza-ekintzari buruzko informazio interesgarri eta garrantzitsua jasotzea, ikasleen ikasketari diziplina arteko koherentzia emateko, Ikastetxeko Zuzendaritzaren eta Hezkuntza eta Curriculum Proiektuaren arauak betez.
- b) Urteko planen lerroei, etapako zehaztapenei, memoriari eta emaitza orokorreari buruzko informazioa jasotzea, hobekuntza-lerroak ahalik ondoen bideratze aldera.
- c) Etapako esperimentazio pedagogikoaren arloko ekimenak proposatzea Zuzendaritza Taldeari.
- d) Etapako antolamenduaren arloko zein zerbitzuen eta baliabide didaktikoen optimizazioaren arloko ekimenak proposatzea Zuzendaritza Talde Orokorrari.
- e) Etapako Klaustroko kideen prestakuntza eta eguneratze pedagogiko eta didaktikorako edukiak aztertzea eta proposatzea.

IKASGELA-ORDEZKARIAK

Ikasle-talde edo ikasgela bakoitzeko gurasoek ordezkari bat izango dute, eta, beraren bidez, taldearen proposamenak edo eskaerak egingo dituzte, eskola-zerbitzuen garapena eta zerbitzuok hobetzeko, urteko planaren garapenari buruz aldi berean behin

informazioa jasotzeko, eta, halaber, Artezkaritza Kontseiluak (Gida Batzordeak) Zuzendaritza Taldeak edo Taldearen Tutoreak egoki iritzitako edozein egoeraren berri jasotzeko.

Talde-edo ikasgela-ordezkaria hautatzea

1.- Ikasturte bakoitzaren hasieran, ziklo hasierako mailetan, urteko planaren berri emateko gurasoekin egiten den lehen bileran, ikasgelako ordezkariak hautatuko dira ziklorako. Boluntariorik ez bada zozketa egingo da.

2.- Ordezkarri guztien artean Artezkaritza Kontseilurako (Gida Batzorderako) kideak hautatuko dira. Boluntariorik ez bada zozketa egingo da..

Gurasoen Kontseilua. Ikasgela ordezkarien osaera

Ikastolako ikasgeletako ordezkariak Gurasoen Kontseilua deituriko organoa osatuko dute.

Deialdiak eta bilerak

Gurasoen kontseilua hiru hilean behin bilduko da gutxienez Artezkaritza Kontseiluko ordezkariak deituta. Etapako zuzendariak ere izango dira bileran.

Zuzendaritza Taldeak egoki baderitzo, Etapa-edo Maila-ordezkarien bilerak ere deituko dira.

Geletako ordezkariak ere gelako gurasoak dei ditzakete egoki baderitzo.

Talde-edo ikasgela-ordezkariaren funtzioak/ Baliabideak

1.- Gela-ordezkariak honako funtzio hauek dauzkate:

a) Urteko planaren garapeneko ildo orokorren informazioa jasotzea, eta ikustea ea plana nola egokitzen den aurreikusitako hiru hilez behingo adierazleetara, batik bat errendimendu akademikoan, orientazioan, bizikidetzan eta berariaz ezarritako hobekuntza-arloetan.

b) Taldean sortzen diren gaiak eta iradokizunak tutoreari edo, hala badagokio, etapako zuzendariari edo Ikasketa-buruari aurkeztea, urteko irakaskuntza-plana, orientabide-eta bizikidetzeta-planak, eta jarduera osagarritzko planak hobeto garatzeko, eta mailako helburuak zuzen betetzeko.

c) Taldean sortzen diren gaiak eta iradokizunak aurkeztea Zuzendaritza Taldeari, etapako zuzendariaren edo ikasketa-buruaren bitartez, urteko plana hobeto garatzeko, eta mailako helburuak betetzeko, honako alor hauei dagokienez: baliabideen antolamendua eta kudeaketa, eta zerbitzu osagarrien alorrean, eskolaz kanpoko

jardueren alorrean eta arlo instituzionalean.

d) Zuzendaritza Taldeari ekimenak eta iradokizunak aurkeztea, eta curriculumeko hizkuntza-helburuen arabera Kooperatiban euskara ikastea eta erabiltzea bultzatuko duten ekintzen garapenean laguntzea, ikasleen arteko elkarlana eta Hezkuntza Proiektuan esplizituki adierazitako balioak garatzeko.

e) Familiei eta, hala badagokio, ikasleei eman beharreko orientazio-hitzaldien edukiei buruzko proposamenak aurkeztea Zuzendaritza Taldeari, gai hauen inguruan: ikasleen bilakaera-prozesua, hezkuntza-sistemako aldaketak, berrikuntza metodologikoak, etab.

f) Tutoreak edo Zuzendaritzak emandako erantzunez eta gaiez informazioa ematea taldeari.

g) Egoki irizitako talde-edo ikasgela-bilerak deitzea, Tutoreak dei ditzakeenak alde batera utzita, eta jorratutako gaien informazioa ematea Tutoreari edo, hala badagokio, Zuzendaritzari.

h) Ordezkarien Kontseiluaren bileretara joatea, eta jorratutako gaien berri ematea bere taldeko gurasoei...

2.- Baliabideak:

a) Ikasgela-ordezkariek berek ordezkatzen duten ikasgelako ikasleen guraso guztien zerrenda edukiko dute ikasturte bakoitzaren hasieran.

b) Ikasgela-ordezkariek Kooperatibako administrazioaren laguntza edukiko dute beren funtzioak egoki betetzeko.

c) Ikasgela-ordezkariek posta elektronikoko helbide bat edukiko dute, halaber, berek ordezkatzen dituztenekin eta Kooperatibako arduradunekin erraz komunikatzeko.

1. Kapitulumua. IRAKASLEAK

68. Artikulua.-*Irakasleak*

Indarreko legedian ezarritakoaren arabera, hauek dira Urretxu- Zumarraga Ikastolako kooperatibako irakasleak:

Haur Hezkuntzako irakasleak.

Lehen Hezkuntzako irakasleak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleak.

Irakasle aholkulariak eta laguntzaileak.

Oharra:; Bazkide langileak edo lan-bazkideak Kooperatibaren Estatutu Sozialen, haien organo sozialek baliotasunez hartutako akordioen, BA honen eta kooperatiban indarrean dauden gainerako akordioen mendean izango dira.

Lan-esparruari dagokionez, bazkide langileek edo lan-bazkideek indarreko Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoari eta Araudi honi heltzen diote.

69. Artikulua.-*Irakaslea*

Ikasleen ikasketa-prozesuen eta heziketa integralaren lehen arduraduna da irakaslea, Zuzendaritza Pedagogikoak haren esku uzten dituen irakasgaien edo arloen esparruan. Eta bere lekutik Urretxu-Zumarraga Irakaskuntza Kooperatibaren Hezkuntza Proiektua aplikatzeko erantzukizun orokorrean dagokion zatia egiten du, eta ikastolako gainerako irakasleekin, taldeekin eta estamentuekin batera, Hezkuntza Proiektuaren planak eskola-ekintzan gauzatzen laguntzen.

70. Artikulua.-*Irakaslearen kontratazioa*

Titularrak zehaztuko du kooperatiban zer irakasle-postu dauden hutsik, eta haiek betetzeko irakasleak kontratatu behar badira, titularrari dagokio kontratazio hori. Irakasleak hautatzeko prozesuan eta kaleratu behar direnean, titularrak kontuan izango du indarreko lan-legedia (Hitzarmen Kolektiboak barne), bai eta Eskola Kontseiluaren parte-hartzeari dagokiona ere.

Kooperatibako langile bat bazkide langile edo lan-bazkide bihurtzeko, hauek hartuko dira kontuan: kooperatibei buruz indarrean dagoen araudia, Ikastetxeko Estatutu

Sozialak eta BA, eta kooperatiban baliotasunez hartutako gainerako akordio guztiak.

71. Artikulua.-*Irakaslearen funtzioak eta betebeharrak*

1. Irakaslearen funtzioak hauek dira:

- a) Ikasturtea hasi aurretik, agindu zaizkion irakasgaien programazio koordinatua egitea, mailako, arloko eta abarreko irakasleekin batera, kooperatibaren berezko izaera errespetatuz, Hezkuntza Proiektuarekin eta Curriculum Proiektuarekin bat etorriz, eta Eusko Jaurlaritzak etapa bakoitzeko curriculuma garatzeko emandako irizpideak zein Zuzendaritza Taldearen arauak kontuan hartuz. Programazio horiek aplikatzea, ebaluatzea eta eguneratzea, Kooperatibaren helburu eta planen arabera. Programazio horiek hauek hartzen dituzte barne: kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko helburuak zein edukiak; ebaluazio-prozedurak eta -irizpideak; ikasleen ikasketa aktiboa eta adierazgarria bideratzeko metodo pedagogikoak eta baliabide didaktikoak; eta aniztasuna tratatzeko zein finkatzeko eta errekupezioko planak, ikasleek etxean egin beharreko lan pertsonalaren planak, eta abar, eta haien jarraipena.
- b) Ikasleen sozializazioa, heltze pertsonala eta ikasketa aktiboa ikasgelan ahalbidetzen dituzten jarduera osagarriak sustatzea, eta haien garatzen laguntzea, eskola-bizitzako gainerako esparruetan, eta natura-eta gizarte-ingurunean egon daitezkeen esparruetan. Eta bereziki ... *(adibidez, Ikastetxeko edo etapa jakin bateko hezkuntza-ekintzaren bereizgarritzat hartu nahi diren bi-hiru atalak zehaztu daitezke, betiere, ikastetxearen berezko izaerarekin eta Hezkuntza Proiektuarekin bat etorriz; esaterako, euskararen erabilera, talde-lana, berrikuntza, sormena eta abar sustatzekoak).*
- c) Ikasleen etengabeko ebaluazioa eta orientatzailea egiteko prozedurak diseinatzea eta aplikatzea, kooperatiban ezarritako sistemaren barruan, Hezkuntza Proiektuaren eta Curriculum Proiektuaren edukiak kontuan harturik, bai eta programetan zehaztutako kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko eskumen eta helburuak ere, maila, arloan eta abarretan adostutako haztapenaren arabera eta Zuzendaritza Taldearen arauari jarraituz.
Ariketak ahalik bizkorren zuzentzea eta, haien bidez, ikasleei beharrezko informazioa ematea, haien ikasketa hobetzen laguntzeko, ebaluazio-aldi bakoitzeko eta ikasturteko ikasketa-prozesuan zehar.
- d) Maila-taldean bileretan eta ebaluazio-saioetan, irakasgai bakoitzaren programazioaren aplikazio-mailari buruzko informazioa ematea, bai eta helburuak, edukiak eta metodologia ikasleen gaitasun eta beharretara egokitzeari buruzkoa ere. Adosten diren aldaketak aplikatzea, Etapako Zuzendariari jakinarazi ondoren.
- e) Norberaren zereginaren esparrutik, irakaskuntza-prozesuen emaitzak, ebaluazio orokorrenak eta Kooperatibako prozesuen eskola-emaitzak aztertzea eta

alderatzea, bai eta, elkarrizketa, galde-sorta edo inkesten bidez, ikasle, familia eta kolaboratzaileen pertzepzioa ere. Emaiza eta pertzepzio horiek kontuan izatea, urteko helburuak eguneratzeko eta norberaren zein lan-taldean hobekuntza-lerroei laguntzeko, Kooperatibaren planekin bat etorritz.

- f) Ikasleak orientatzea, adinaren eta beharren arabera, honako hauetan, besteak beste: heltze pertsonaleko eta sozializatzeko prozesuetan; ikasketa adierazgarri eta arduratsuko prozesuetan; eta ikasketa-teknikak lortzen, ezaguerak lortu eta etengabeko ikasketara ohitu daitezzen.
 - g) Tutoreekin elkarlanean aritzea ikasleei heziketa integrala ematen, norberaren irakaskuntza-lana hezkuntza-ekintza orokorrean sartuz eta tutoretzapekoei buruzko datu interesgarriak emanez, betiere, beharrezkoa den zuhurtzia gordeta.
 - h) Ikasleen guraso eta legezko tutoreei arreta ematea, Ikastetxeak komunikazio horretarako ezarritako plan eta kanalei jarraituz, eta seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa ematea, lankidetzan ahalik onena izan dadin.
 - i) Ikasleak eskoletan eta eskola-bizitzan ondo portatzeaz arduratzea, eta arauak betetzen dituztela bermatzeaz, bizikidetzan-planaren arabera.
 - j) Ikasleen artean bitarteko egitea, sor daitezkeen gatazka-egoerak lehengora eramateko edo konpontzeko. Denen artean errespetua ahalbidetuko duen giro positiboa sortzen laguntzea, eta eskola-bizitzan gerta daitezkeen indiziplina-egoerak lehengora eramaten eta konpontzen, horretarako ezarri diren bideetatik. Gainera, diziplina-txostenak bideratzea, beharrezkoa denean.
 - k) Irakaskuntza-eta orientazio-prozesuak aztertzea, esperimendatzea eta hobetzea, norberaren erantzukizun-esparrutik, eta Ikastetxearen planekin bat etorritz.
 - l) Indarreko hezkuntza-eta lan-legediaren esparruan erregelamendu bidez edo Ikastetxearen araudiak ematen dizkion gainerako funtzioak egitea.
 - m)[...] Haien ardurapeko ikasleak une oro zaintzea, ikasgelan, jolastokian, etab., behar bezalako arreta emanez, eta ezarritako zaintza-eta txanda-jarraibideak betez. Ezohiko eta atzeraezinezko kausaren batengatik aldi baterako joan behar izanez gero, lankideren baten laguntza lortu behar du alde aurretik, ikasleak behar bezala zainduta eta kontrolatuta egon daitezzen, edo arduraduna jakinaren gainean jarri.
 - n) Beren zereginaren ondorioz ikasle eta familien ohoreari eta intimitateari kalte egin diezaiekeen informazio sentikorrik lortuz gero, hura konfidentziasunez eta zuhurtziaz gordetzea. Informazio horren berri kasu batean soilik emango da: behar-beharrezkoa denean, eta ikaslearen eskola-prozesuan zuzenean eta positiboki esku hartzen behar duten arduradunei.
 - o) [...]
- 1 Elkarlanaren eta talde-lanaren printzipioei jarraituz egingo dituzte funtzio eta betebeharrak horiek.
 - 2 Aurreko funtzio eta betebeharrak alde batera utzi gabe, bazkide langileak edo lan-bazkideak diren irakasleek beste eskubide eta betebeharrak batzuk izango dituzte; hain zuzen ere, indarrean dauden Estatutu Sozialetan, Barne Araudian eta kooperatiban baliotasunez hartutako beste akordioetan bazkide langileei eta lan-

bazkideei dagozkienak.

72. Artikulua.-*Diziplina-araubidea*

Diziplina-araubideari dagokionez, hauek dira kontuan izatekoak: irakasleen lan-egoera arautzen duen indarreko araudia, Araudi hau, eta, dagokionean, BAREN ondorioz sortutako eta eskumeneko organoek ontzat emandako barne-arauak.

Irakasle batek unean-unean bere funtzio eta betebeharren ez-betetze arina egiten badu, etapako zuzendariaren, etapako buruaren edo zuzendari pedagogikoaren oharpena jasoko du lehenik eta behin.

Araudi honetan, Funtzioen Eskuliburuan eta indarreko legedian ezarritako arauak behin eta berriz bete ez eta urratzen baditu, kooperatibako *zuzendari kudeatzaileak edo administratzaile nagusiak* ohartaraziko du lehenengo eta behin.

Hutsegiteak direla medio beharrezkoa bada, Kontseilu Errektoreak erabakiko du zer prozesuri jarraitu, Zuzendaritzari entzun eta gero. Bermatuta dago kaltetuari entzun egingo zaiola eta indarreko legedian ezarritako prozedurak errespetatuko direla, bai eta Eskola Kontseiluak irakasle bat kaleratzeko prozeduran aurreikusita duen esku-hartzea ere.

2. oharra: Lan elkartuko kooperatibetako eta kooperatiba integraletako irakasle bazkideen kasuan erabil daitekeen bertsioa.

[Estatutu Sozialetan, Araudi honetan eta indarreko legedian ezarritako arauak behin eta berriz bete ez eta urratzen baditu, kooperatibako zuzendari kudeatzaileak edo administratzaile nagusiak ohartaraziko du lehenengo eta behin. Hutsegiteak direla medio beharrezkoa bada, Kontseilu Errektoreak erabakiko du zer prozesuri jarraitu, Zuzendaritzari entzun eta gero. Bermatuta dago kaltetuari entzun egingo zaiola, eta Estatutu Sozialetan eta indarreko legedian ezarritako prozedurak errespetatuko direla, bai eta Eskola Kontseiluak irakasle bat kaleratzeko prozeduran aurreikusita duen esku-hartzea ere.]

73. artikulua.-*Irakaslearen eskubideak*

1. Irakasleak eskubide hauek ditu:

- a) Irakaskuntza-askatasuna izatekoa eta haren sinismenak errespetatuak izatea, Curriculum Proiektuaren, mailako programazio koordinatuaren eta ematen dituen irakasgaien esparruan, Ikastetxeko Berezko Izaera errespetatuz, eta haren Hezkuntza Proiektuaren eta Curriculum Proiektuaren arabera.
- b) Kooperatibako urteko planei buruzko informazioa jasotzekoa, bai eta beren lana ahalik eta ondoen egiteko beharrezko informazioa ere.

- c) Hezkuntza-prozesuak eta eskola-bizitza hobetzeko ekimenak iradokitzea eta arduradunei proposamenak aurkezteko, beren lanbide-zereginaren eta ekintza-arloen esparruan.
 - d) Etengabeko prestakuntzako ikastaro eta jardueretan parte hartzea, ikastetxeko Zuzendaritza Taldeak ezarritako irizpide, plan eta lehentasunen arabera.
 - e) Hezkuntza-ikerketan eta -berrikuntzan aritzea, beren ekintza-arloen eta lanbide-zereginaren esparruan, betiere, kooperatibaren plan eta araukin bat etorrituz.
 - f) Beren ekintza-arloen eta lanbide-zereginaren esparruan sor daitezkeen lantaldeetan, hobekuntza-jardueretan eta proiektuen garapenean parte hartzea.
 - g) Eskola-bizitza garatzen eta hobetzen laguntzea, honela: irakaskuntzalanaren bidez; maila, zikloa, mintegia eta abar koordinatuz; eta tutore-funtzioaren bitartez.
 - h) Ikastetxeko gobernuan parte hartzea, indarreko legediak zehaztutako organoen bidez. Hauek dira: Irakasleen Klaustroa eta irakasleek Partaidetza Organoko kide izateko aukeratutako ordezkariak. Zuzendariak egingo du organo horretako kide izango diren irakasleak aukeratzeko deialdia, lege ezarritako prozedurari jarraituz.
 - i) Beren lehentasunak argudioz azaltzea, maila jakin batean aritzea eskatzeko edo lanbide-igoera eskatzeko. Eta eskaera edo helegiteak aurkezteko Zuzendaritzari edo kasuan-kasuan dagokion organoari.
 - j) Berdintasunezko tratua izateko eta hezkuntza-komunitatean merezi duen begirunea jasoteko, beren hezkuntza-funtzioaren eta ekarpen pertsonalen arabera.
 - k) Kooperatibako instalazio, baliabide eta zerbitzuak erabiltzeko, kasuan-kasuan ezarritako bide, baldintza eta arauak betez. l) [...]
2. Aurreko eskubideak alde batera utzi gabe, bazkide langileak edo lan-bazkideak diren irakasleek beste eskubide eta betebeharrak batzuk izango dituzte; hain zuzen ere, indarrean dauden Estatutu Sozialetan, Barne Araudian eta Kooperatiban baliotasunez hartutako beste akordioetan bazkide langileei eta lan-bazkideei dagozkienak.

74. Artikulua.-*Irakasle tutorea*

- A. Ikasle-talde jakin baten hezkuntza-prozesuan ikastetxearen Hezkuntza Proiektua aplikatu behar duen irakaslea da irakasle tutorea. Ikasle horiek Ikastetxean ematen duten denborako esparru guztietan egiten du zeregin hori, betiere, indarreko legedia, Zuzendaritza Taldearen arauak, eta Orientazio Taldearen eta Etapako Zuzendaritzaren jarraibideak betez.
- B. Ikasle horietako bakoitzaren heziketa integrala zaindu, orientatu eta indartu behar du, ikasleen ikasketa-prozesuen, garapen pertsonalaren eta sozializazioaren jarraipena eginez. Eta, horretarako, funtzio hauek ditu:
- a) Ikasle bakoitzaren egoera pertsonala eta eskola-pertsonala zein diren jakitea. Horretarako, ikasleen eskola-ibilbideari eta ingurune familiar eta sozialari buruzko beharrezko datuak jasotzea, iturri hauek erabiliz: ikaslearen espedientea; elkarrizketa pertsonalen urteko programaren ildoan, ikasle bakoitzari eta haren senideei egiteko elkarrizketak; ebaluazio-bilerak eta irakasle-taldearen bilerak; etab. Ikasleen erregistroak osatzea, gordetzea eta behar bezala erabiltzen direla zaintzea; alegia, beren zereginaren ondorioz informazio sentikorrik lortuz gero, hura konfidentzialtasunez eta zuhurtziaz erabiltzen dela zaintzea.
 - b) Ikasleei haien ikasteko, garapen pertsonaleko eta sozializatzeko prozesuei buruzko aholkuak ematea, kooperatibaren Hezkuntza Proiektuaren edukiak eta balioak zein irakasle-taldearen iritziak kontuan harturik. Ikasleei haien gaitasun intelektual, psikologiko eta sozialak aurkitzen eta indartzen laguntzea, eta nori bere muga eta erritmoak onartzen, hezkuntza-sistemaren, inguruaren eta lanbide-etorkizunaren testuinguruan.
 - c) Ikasturtean zehar eta ikasleen eskola-ordutegian beren-beregi ezarritako saioetan, Orientazio Taldeak formulatutako orientazio-programak eta tutoretaldean ekarpenak aplikatzea, Zuzendaritza Taldearen arauak betez, ikasleak kooperatibaren Hezkuntza Proiektuko balioetan hez daitezten.
 - d) Beren taldeko ikasleen guztizko ebaluazioak koordinatzea, etapa eta ziklo bakoitzerako ezarritako jarraibideen arabera.
 - e) Gurasoei seme-alaben eskola-ibilbideari, garapen pertsonaleko prozesuari eta etorkizuneko aukerei buruzko informazioa ematea, eta entzutea eta haiek orientatzea, hezkuntza-prozesuak ahalik eraginkorrenak izan daitezten.
 - f) Ikasleei eta familiei urteko plan eta memoriei buruzko informazioa emateko programetan parte hartzea, Zuzendaritza Taldeak eta Etapako Kudeaketa Taldeak ezarritako irizpideei jarraituz.
 - g) Zikloko koordinatzailearekin eta/edo diziplina-buruarekin elkarlanean aritzea, eta haiei ikasleen heziketa-prozesua eta kooperatibaren Hezkuntza Proiektuaren garapena eragotz ditzakeen gertaera eta egoeren berri ematea. Bizikidetzagiro egokia sortzen laguntzea, eta ikasleen bertaratze-faltak kontrolatzeaz eta gurasoei jakinarazteaz arduratzea, ezarritako jarraibideen

arabera. Ikasleren batek diziplina-arauak urratzen baditu, indarreko araudiari jarraituz esku hartzea.

- h) Taldeko irakasleei informazioa eta aholku ematea, beren funtzioen esparruan, haien irakaskuntza-eta prestakuntza-zeregina ahalik eraginkorra izan dadin.
- i) Ikasleei eskola-bizitzako gertaera berezien berri ematea, Zuzendaritza Taldearen arauari jarraituz, eta idatzizko informazioak familiei helaraztea: buletin, zirkularren eta abarren bitartez.
- j) Orientazio Taldearekin eta Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean aritzea, norberaren zeregin-mailatik, ikasleak orientatzeko eta haien aniztasuna tratatzeko programen helburu eta edukiak hobetze aldera, programa horien emaitzak kontuan harturik.
- k) Tutoretza-ekintzaren ondorioz sortutako dokumentu akademikoak betetzea.
- l) [...]

75. Artikulua.-*Irakasle tutoreen izendapena*

Ikasturte-hasieran, zuzendari tekniko akademikoak edo pedagogikoak talde bakoitzeko tutoreak izendatuko ditu, etapako zuzendariak edo etapako buruak proposatuta, eta *zuzendari kudeatzaileari/administratzaile nagusiari* jakinarazi ondoren.

Bigarren Hezkuntzako irakasle tutorea erreferentziazko ikasle-taldeko irakasleetatik aukeratuko da. Irakasle tutorearen lana errazteko, ikasle-talde berberarekin bi ikasturtez egongo da gutxienez ere.

76. Artikulua.-*Irakasle tutorea*

- A. Ikasle-talde jakin baten hezkuntza-prozesuan ikastetxearen Hezkuntza Proiektua aplikatu behar duen irakaslea da irakasle tutorea. Ikasle horiek Ikastetxean ematen duten denborako esparru guztietan egiten du zeregin hori, betiere, indarreko legedia, Zuzendaritza Taldearen arauak, eta Orientazio Taldearen eta Etapako Zuzendaritzaren jarraibideak betez.
- B. Ikasle horietako bakoitzaren heziketa integrala zaindu, orientatu eta indartu behar du, ikasleen ikasketa-prozesuen, garapen pertsonalaren eta sozializazioaren jarraipena eginez. Eta, horretarako, funtzio hauek ditu:
 - a) Ikasle bakoitzaren egoera pertsonala eta eskola-pertsonala zein diren jakitea. Horretarako, ikasleen eskola-ibilbideari eta ingurune familiar eta sozialari buruzko beharrezko datuak jasotzea, iturri hauek erabiliz: ikaslearen espediente; elkarrizketa pertsonalen urteko programaren ildoan, ikasle bakoitzari eta haren senideei egiteko elkarrizketak; ebaluazio-bilerak eta irakasle-taldearen bilerak; etab. Ikasleen erregistroak osatzea, gordetzea eta behar bezala erabiltzen direla zaintzea; alegia, beren zereginaren ondorioz informazio sentikorrik lortuz gero, hura konfidentzialtasunez eta zuhurtziaz

erabiltzen dela zaintzea.

- b) Ikasleei haien ikasteko, garapen pertsonaleko eta sozializatzeko prozesuei buruzko aholkuak ematea, kooperatibaren Hezkuntza Proiektuaren edukiak eta balioak zein irakasle-taldearen iritziak kontuan harturik. Ikasleei haien gaitasun intelektual, psikologiko eta sozialak aurkitzen eta indartzen laguntzea, eta nori bere muga eta erritmoak onartzen, hezkuntza-sistemaren, inguruaren eta lanbide-etorkizunaren testuinguruan.
- c) Ikasturtean zehar eta ikasleen eskola-ordutegian beren-beregi ezarritako saioetan, Orientazio Taldeak formulatutako orientazio-programak eta tutoretaldean ekarpenak aplikatzea, Zuzendaritza Taldearen arauak betez, ikasleak kooperatibaren Hezkuntza Proiektuko balioetan hez daitezten.
- d) Beren taldeko ikasleen guztizko ebaluazioak koordinatzea, etapa eta ziklo bakoitzerako ezarritako jarraibideen arabera.
- e) Gurasoei seme-alaben eskola-ibilbideari, garapen pertsonaleko prozesuari eta etorkizuneko aukerei buruzko informazioa ematea, eta entzutea eta haiek orientatzea, hezkuntza-prozesuak ahalik eraginkorrenak izan daitezten.
- f) Ikasleei eta familiei urteko plan eta memoriei buruzko informazioa emateko programetan parte hartzea, Zuzendaritza Taldeak eta Etapako Kudeaketa Taldeak ezarritako irizpideei jarraituz.
- g) Zikloko koordinatzailearekin eta/edo diziplina-buruarekin elkarlanean aritzea, eta haiei ikasleen heziketa-prozesua eta kooperatibaren Hezkuntza Proiektuaren garapena eragotz ditzakeen gertaera eta egoeren berri ematea. Bizikidetzatza-giro egokia sortzen laguntzea, eta ikasleen bertaratze-faltak kontrolatzeaz eta gurasoei jakinarazteaz arduratzea, ezarritako jarraibideen arabera. Ikasleren batek diziplina-arauak urratzen baditu, indarreko araudiari jarraituz esku hartzea.
- h) Taldeko irakasleei informazioa eta aholku ematea, beren funtzioen esparruan, haien irakaskuntza-eta prestakuntza-zeregina ahalik eraginkorrena izan dadin.
- i) Ikasleei eskola-bizitzako gertaera berezien berri ematea, Zuzendaritza Taldearen arauari jarraituz, eta idatzizko informazioak familiei helaraztea: buletinen, zirkularren eta abarren bitartez.
- j) Orientazio Taldearekin eta Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean aritzea, norberaren zeregin-mailatik, ikasleak orientatzeko eta haien aniztasuna tratatzeko programen helburu eta edukiak hobetze aldera, programa horien emaitzak kontuan harturik.
- k) Tutoretza-ekintzaren ondorioz sortutako dokumentu akademikoak betetzea.
- l) [...]

77. Artikulua.-*Irakasle tutoreen izendapena*

Ikasturte-hasieran, zuzendari tekniko akademikoak edo pedagogikoak talde bakoitzeko tutoreak izendatuko ditu, etapako zuzendariak edo etapako buruak proposatuta, eta zuzendari kudeatzaileari/administratzaile nagusiari jakinarazi ondoren.

Bigarren Hezkuntzako irakasle tutorea erreferentziazko ikasle-taldeko irakasleetatik aukeratuko da. Irakasle tutorearen lana errazteko, ikasle-talde berberarekin bi ikasturtez egongo da gutxienez ere.

76. Artikulua.-*Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle aholkularia.*

Beharrezko titulazioa izanda funtzio hori egiteko berariaz izendatutako irakaslea da Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle aholkularia. Bere irakaskuntza-lanaldian egiten du funtzio hori, eta, besteak beste, mailako tutoreen lana bideratzeko eta indartzeko xedea du, bere eskumenaren arabera. Ikus zein den beharrezko titulazioa.

Etapako Orientazio Taldeko kidea da. Etapako ziklo eta mailetako orientazio-programak koordinatu eta, dagokionean, diseinatzen ditu, tutore-taldeei entzunda, eta Zuzendaritza Taldearen eta etapako zuzendariaren irizpideen arabera. Hain zuzen ere, etapako zuzendariaren aurrean erantzuten du.

Orobat, figura hau aipatzeak ez du esan nahi derrigorrez eratu behar direnik. Kontseilu Errektoreak erabaki beharko du, Zuzendaritza Nagusiak hala proposatuta, Zuzendaritza Taldeak horri buruzko erabakia hartu ondoren. Halaber, Kontseilu Errektoreak erabaki beharko du figura horien arduraldiak zer irismen duen, bai eta figura horiek desagertzen diren edo eginkizun horren ardura zuen pertsonak une jakin batean interesgarritzat jo daitekeen beste zeregin batean hasten den, Ikastetxearen behar eta erronkei ahalik hobekien erantzute aldera. Ikus iruzkinak

2. KAPITULUA: IRAKASLEEN LAN ETA KOORDINAZIO TALDEAK

Ezinbestekoa da pertsona guztiek elkarrekin jardutea, kooperatibaren Hezkuntza Proiektua garatuko bada. Horretarako, beharrezkoa da irakasleen lantaldeak eta koordinazio-taldeak eratzea, bai eta denen ekimenak bat etortzea ere; alde batetik, ikasleei kalitatezko eskola-zerbitzu bereziak eskaintzeko, eta beste batetik, zerbitzu horiek kooperatibaren planen arabera hobetzeko.

Aurreko kapituluetak lege-erreferentzien eta iruzkinen arabera, titularrari dagokio ikastetxeen antolakuntza-eta kudeaketa-eredua diseinatzea, irakasleen lantaldeak eta koordinazio-taldeak barne hartuta, eta BAn zehaztea, indarrean den legediaren esparruaren barruan.

Lantalde horien lana eraginkorra izan dadin, ordu-esparru koordinatu batean oinarrituta egon behar du, urteko, hileko edo asteko ordu-esparru osagarriaren barruan, baita III. Tituluan adierazitako ikastetxeko pertsona bakarreko gobernu-eta kudeaketa-organoetan ere.

79. artikulua.-*Irakasleen lan-eta koordinazio-taldeak*. Hauek dira lan egiteko, irakasleak koordinatzeko eta Haur eta Lehen Hezkuntzaren hobekuntza kudeatzeko oinarrizko taldeak:

- Zikloko, mailako eta arloko Lan Taldeak taldeak.
- Orientazio-taldea.
- Berariaz zehaztutako zehar-proiektuen taldeak.

Hauek dira lan egiteko, irakasleak koordinatzeko eta Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren Lan Taldeak

- Zikloko edo mailako taldeak.
- Mintegiak
- .Orientazio-taldea.
- Berariaz zehaztutako zehar-proiektuen taldeak.

Talde horiek aipatzeak ez du esan nahi eratu zein mugatu behar direnik. Kontseilu Errektoreak erabaki beharko du *zuzendari nagusiak/administratzaile nagusiak* hala proposatuta. Orobat, Kontseilu Errektoreak erabaki beharko du talde horiek birmoldatzen diren edo haien funtzioak beste talde batzuei ematen zaizkien, Ikastetxearen behar eta erronkei ahalik hobekien erantzute aldera.

80. Artikulua.-*Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen lan-eta koordinazio-taldeak*

Ziklo edo maila batera esleitutako irakasleek mailako edo zikloko taldea osatzen dute.

Haur eta Lehen Hezkuntzako *curriculumeko* irakasgai edo arlo bateko irakasleek arloko taldea osatzen dute.

Zehar-proiektu batera esleitutako irakasleek ere lantaldea osatzen dute, proiektu hori kooperatibaren irismen bereziko atal bat bada (*Euskara Bizia, berariazko finkatze-planak, truke-plana, hobekuntzaren kudeaketa...*).

Lan-taldeen mahaiburua zikloko koordinatzailea izango da, edo hura koordinatzeko izendatutako pertsonak.

Talde horien lan-bilerak urteko egutegia egitean zehaztutako esparruan egingo dira, eta Zuzendaritza Taldeak eta etapako zuzendariak/ikasketaburuak taldeen zereginak lehenetsun araberako antolatze emandako jarraibideen arabera.

81. Artikulua.-*Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloko edo mailako lan-taldeen funtzioak*

Etap horietako mailako/zikloko taldeen funtzioak honako hauek dira, bereziki:

- a) Ikasturtea hasi aurretik, mailako/zikloko urteko programazio orokorra berrikustea eta haren aplikazioa prestatzea. Horretarako, kooperatibaren programazio orokorra, Zuzendaritza Taldearen arauak, eta urteko planaren eta Hezkuntza Proiektuaren helburuak hartuko dituzte kontuan.
- b) Mailako edo, kasuan-kasuan, zikloko irakasgaien programazio koordinatua egitea, kooperatibaren berezko izaera errespetatuz, Hezkuntza Proiektuarekin eta Curriculum Proiektuarekin bat etorritik, eta etapa bakoitzeko curriculumak garatzeko irizpideak zein Zuzendaritza Taldearen arauak kontuan hartuz.

Programazio horiek hauek hartzen dituzte barne: kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko helburuak zein edukiak; helburuak; ebaluazio-prozedurak eta -irizpideak, eta haien haztapen zehatza; ikasleen ikasketa aktiboa eta adierazgarria bideratzeko metodo pedagogikoak eta baliabide didaktikoak; eta aniztasuna tratatzeko zein finkatzeko eta errehabilitazio planak, ikasleek etxean egin beharreko lan pertsonalaren planak, eta abar, eta haien jarraipena. Eta etapakoekin bat etorri behar dute.

- c) Programazio horien unitate didaktikoak, helburuak, metodologia eta berariazko baliabide didaktikoak egunero modu koordinatuan nola aplikatu prestatzea. Esperientzia ebaluatzea, bai eta ikasleen gaitasun, behar eta interesetara nola egokitzen den ere.
- d) Ikasleen etengabeko ebaluazioa eta orientatzailea egiteko prozedurak eta irizpidea elkarrekin diseinatzea eta aplikatzea, kooperatibaren ezarritako sistemaren barruan, Hezkuntza Proiektuaren eta Curriculum Proiektuaren heziketa integraleko edukiak kontuan harturik, bai eta programetan zehaztutako kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko eskumen eta helburuak ere, maila, arloan eta abarretan adostutako hastapenaren arabera, eta Zuzendaritza Taldearen arauak jarraituz.

Ariketak ahalik bizkorren zuzentzea eta, haien bidez, ikasleei beharrezko informazioa ematea, programazioetan argi eta garbi azaldutako ataletan ikasleek duten ikasketa-jarduera hobetzen laguntzeko, ebaluazio-aldi bakoitzeko eta ikasturteko ikasketa-prozesuan zehar.

- e) Jarduera osagarrien urteko programaren barruan eskola-esparruko zein eskolaz kanpoko esperientzia eta ekimenak sustatzea; alde batetik, ikasleen ikasketa aktiboa eta adierazgarria bultzatzeko, eta beste batetik, natura zein gizarte-ingurunearekin duten interakzioa hobetzeko, ekimena eta sormena gara ditzaten, eta ahalik ondoen sozializa daitezzen. Besteak beste, hauek izan daitezke esperientzia eta ekimen horiek: atazak, lehiaketak, trukeak, bisitaldiak eta

urteurren adierazgarriak.

- f) Ikastetxeko bizikidetza-arauak koordinazioz eta koherentziaz aplikatzen direla zaintzea, mailako/zikloko ikasleen eskola-bizitzako esparru guztietan. Bizikidetza ebaluatzea, eta hura hobetzeko iradokizun eta proposamenak helaraztea, koordinatzailearen bidez.
- g) Ikasturtean zehar, orientazio-plana eta mailako/zikloko ikasleen aniztasunaren trataera koordinazioz eta koherentziaz aplikatzen dela zaintzea. Koordinatzailearen bidez, neurri zuzentzaile egokiak helaraztea orientazio-taldeari eta zuzendariari/zuzendariordeari/etapako ikasketaburuari, eta adostutako neurriak aplikatzea.
- h) Mailako/zikloko urteko programen garapenaren eta betetze-mailaren hiru hilean behingo jarraipena egitea, aurrez ezarritako adierazleak kontuan hartuz. Egokitzapen edo neurri zuzentzaile egokiak adostea eta aplikatzea, zuzendariari/zuzendariordeari/etapako ikasketaburuari jakinarazi ondoren.
- i) Zuzendaritza Taldearen eta Etapako Kudeaketa Taldearen proposamenak aztertzea, eta etapako Curriculum Proiektua eguneratzeko proposamenak adostea, aniztasuna ahalik eta hobekien tratatzeko, baliabide eta ekipoak optimizatzeko, komunikazioa hobetzeko, etab., bai eta beren burua eguneratzeko eta lanbide-jarduna hobetzeko ere.
- j) Ikasleei eta familiei urteko planei buruz eman beharreko informazio eta saioren edukiak elkarrekin koordinatzea eta prestatzea, Etapako Kudeaketa Taldeak ezarritako irizpideei jarraituz. Eta, dagokionean, beste etapa batzuetarako edo kanpo-trukerako informazioak prestatzea.
- k) Mailako edo zikloko irakaskuntza-eta ikasketa-prozesuen emaitzak aztertzea, ikasle eta familien iritziak ere kontuan hartuz, eta kanpoko emaitzekin alderatzea. Emaitzak hobetzeko ekimenak zehaztea eta garatzea, kooperatibaren planekin bat etorriz, eta emaitzen jarraipena hiru hilean eta urtean behin egiteko helburu eta adierazleak ezartzea.
- l) [...]

82. Artikulua.-*Haur-hezkuntzako, lehen eta/edo bigarren hezkuntzako eta batxilergoetako Orientabide Taldeak*

Orientabide Taldeak honako hauek osatuko dituzte: zuzendari pedagogikoak eta etapakoak, irakasle orientatzaile koordinatzaileak eta/edo berariaz izendatutako aholkulariak, maila bakoitzeko hezkuntza bereziko irakasle tutoreek eta, dagoenean, kooperatibako psikologo aholkulariak.

Orientabide Taldeak koordinatzen ditu Kooperatibako orientatze-ekintzak eta, bereziki, irakasle tutoreen taldeenak.

Orientabide-prozesuko planak Zuzendaritza Pedagogikoak animatu, koordinatu, ebaluatu eta eguneratuko ditu, eta, bestela, eskuduntzaren eta esleitutako erantzukizun-esparruaren arabera beren beregi izendatutako arduradunak. Arreta berezia eskaini beharko die, ikasleen inguruko diagnostiko-, errefortzu-eta

berreskuratze-jarduerei, jarrera disruptiboak prebenitzeari eta errespetua, bizikidetzeta eta lan arduratsua nagusi izango dituen giroa ahalbidetzeko, Kooperatibako heziketa-proiektuko balioak aintzat hartuta.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzan eta batxilergoetan, orientabide akademikoa eta profesionala ere garrantzitsuak izango dira.

Eduki edo egoera berezietarako, ohiko laguntzaileak (aholkularitza pedagogikoko zerbitzua, Berritzegunea...) eta lanbide-orientaziorako ikasle ohiak, bazkideak... izango ditu.

83. Artikulua.-*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako irakasleen lan-eta koordinazio-taldeak*

Mailako eta/edo zikloko taldeak (koordinazio bertikalerako) eta mintegiak (horizontalerako) dira derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoetako irakasleen talde-lanerako eta koordinaziorako oinarritzko egiturak.

Ziklo edo maila batera esleitutako irakasleek mailako edo zikloko taldea osatzen dute.

Kooperatibako curriculumeko gai bereko edo antzeko irakasleak, bestalde, mintegietan biltzen dira, talde-lana eta koordinazio bertikala gauzatzeko, zuzendaritza-taldeak erabakitako antolamenduari jarraiki.

Berariaz zehaztutako zeharkako proiektuetarako izendatutako irakasleek ere lan-taldea osatzen dute, Kooperatiban atal berezia eta hedadura handikoa direnean, adibidez: *Euskara bizia, Errefortzuen plan espezifikoak, Truke-plana, Hobekuntzaren kudeaketa...*

Zikloko koordinatzaileak, mintegiko buruek edo koordinazio-lanez arduratzen direnek zuzenduko dituzte lan-taldeak.

Urteko egutegiarekin batera zehaztutako lan-bileretan elkartuko dira, eta, zereginak ordenatu eta lehenesteko, zuzendaritza-taldearen eta etapako zuzendariaren jarraibideak hartuko dituzte aintzat.

84. Artikulua.-*Bigarren hezkuntzako eta batxilergoetako mailako eta/edo zikloko taldeen zereginak*

Mailako eta/edo zikloko taldeek zeregin nagusi hauek dituzte:

- a) Ikasturtea hasi aurretik, mailako/zikloko urteko programazio orokorra berrikustea eta haren aplikazioa prestatzea. Horretarako, kooperatibaren programazio orokorra, Zuzendaritza Taldearen arauak, eta urteko planaren eta Hezkuntza Proiektuaren helburuak hartuko dituzte kontuan.
- b) Ikasleek etxean egiteko lan pertsonalerako jarraibideak modu koordinatuan aplikatzeko prestatzea, ikasleen ordezkariari entzun ondoren.
- c) Ebaluazioko eta aurre-ebaluazioko probak modu koordinatuan aplikatzeko prestatzea, ezarrita dauden jarraibideak eta mintegietako buruen nahiz ikasle-

ordezkarien iritzia ahaztu gabe.

- d) Errekuperazioetarako eta errefortzuetarako berariazko programak modu koordinatuan aplikatzeko prestatzea, ezarrita dauden jarraibideen eta mintegietako buruen nahiz ikasleen ordezkarien iritzia araberak.
- e) Jarduera osagarrien urteko programaren barruan eskola-esparruko zein eskolaz kanpoko esperientzia eta ekimenak sustatzea; alde batetik, ikasleen ikasketa aktiboa eta adierazgarria bultzatzeko, eta beste batetik, natura-zein gizarte-ingurunearekin duten interakzioa hobetzeko, ekimena eta sormena gara ditzaten, eta ahalik ondoen sozializa daitezten. Besteak beste, hauek izan daitezke esperientzia eta ekimen horiek: atazak, lehiaketak, trukeak, bisitaldiak, urteurren adierazgarriak...
- f) Ikastetxeko bizikidetzak-arauek koordinazioz eta koherentziaz aplikatzen direla zaintzea, mailako/zikloko ikasleen eskola-bizitzako esparru guztietan. Aplikazioa ebaluatzea eta, koordinatzailearen bitartez, hobetzeko iradokizun eta proposamenak helaraztea, ikasleen ordezkariarekin eta familiarekin hitz egin ostean.
- g) Ikasturtean zehar, mailako eta/edo zikloko orientabide-plana eta ikasleen aniztasunaren trataera koordinatua eta koherentea den gainbegiratzea, tutoretaldeekin batera. Koordinatzailearen bitartez, orientabide-taldeari eta *etapako zuzendariari edo ikasketaburuari* egokitzapenen edo beharrezko neurri zuzentzaileen berri ematea eta hitzartutakoak aplikatzea, ikasleen ordezkariarekin eta familiei entzun ondoren.
- h) Mailako eta/edo zikloko urteko programak nola garatzen diren aztertzea, ebaluazio-saioetan. Beste horrenbeste egitea, hiruhilekoko betetze mailari buruz, ezarritako adierazlearen arabera. Beharrezko egokitzapenak eta neurri zuzentzaileak adostu eta aplikatzea, *etapako zuzendaria edo ikasketaburua* jakinaren gainean jartzea eta, dagokionean, mintegi-buruen, ikasleen ordezkarien eta familien iritzia aintzat hartzea.
- i) Etapako kudeaketa-taldearen gidalerroei jarraiki, urteko planen inguruko informazioak eta horiek ikasle eta gurasoei komunikatzeko saioen edukia koordinatu eta prestatzea. Eta, dagokionean, beste etapa batzuetarako edo kanpo-trukerako informazioak prestatzea.
- j) Etapako zuzendaritza-eta kudeaketa-taldearen proposamenak aztertzea eta etapako curriculum-proiektua eguneratzeko proposamenak adostea, helburu hauekin: aniztasuna hobeto tratatzea, baliabideak eta ekipamenduak optimizatzea, komunikazioa hobetzea, taldea eguneratzea eta lanbide-jarduera hobetzea.
- k) Mailako edo zikloko irakaskuntza-eta ikasketa-prozesuen emaitzak aztertzea, ikasle eta familien iritzia ere kontuan hartuz, eta kanpoko emaitzekin alderatzea. Emaitzak hobetzeko ekimenak zehaztea eta garatzea, kooperatibaren planekin bat etorriz, eta emaitzen jarraipena hiru hilean eta urtean behin egiteko helburu eta adierazleak ezartzea.

l) [...]

85. Artikulua.-*Bigarren hezkuntzako eta batxilergoetako mintegiko taldeen zereginak*

Hona hemen mintegiko taldeen zeregin nagusiak:

a) Ikasturtea hasi baino lehen, maila bakoitzeko irakasgaien urteko programazio koordinatua egiteko jarraibide orokorrak eguneratzea, Kooperatibaren berezko izaera errespetatuz, heziketa-eta curriculum-proiektuarekin koherente izanez eta etapa bakoitzeko garapen-dekretuak eta zuzendaritza-taldearen gidalerroak aintzat hartuta.

Gidalerrootan, honako hauek sartzen dira: maila bakoitzeko helburuak eta kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko gaitasun eta edukiak; ikasleen ikaskuntza aktiboa eta esanguratsua ahalbidetzeko metodo pedagogikoak, eta baliabide didaktikoen eta ekipamendu berezien erabilera eraginkorra; aniztasuna, errefortzua, errekupeazioa eta ikasleek etxeetan egin beharreko lan pertsonala aintzat hartzen dituzten planak; eta horien guztien jarraipena.

b) Maila eta ziklo bakoitzeko arloko irakasle taldeen programazio-zereginak koordinatzea, helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak ziklo eta etapakoekin koherenteak izan daitezzen.

c) Arloko prozedura eta irizpide orokorrak batera diseinatzea, ikasleei etengabeko ebaluazio orientatzailea eskaintzeko, heziketa-eta curriculum-proiektuetako hezkuntza integraleko edukiak, batetik, eta programetan zehaztutako kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko gaitasun eta helburuak, bestetik, aintzat hartuta. Halaber, atal horietako bakoitzak ebaluazioan izango duen hastapena adostea, irakasgai eta ziklo bakoitzerako.

d) Programak aplikatzeko eta betearazteko prozesuak koordinatzea. Aurreikusitako metodologia, edukiak, baliabideak... helburuak lortzeko egokiak diren eta ikasleen behar, gaitasun eta interesetara moldatuta dauden balioestea, ikasturtean zehar. Eta, beharrezkotzat jotzen denean, egin beharreko egokitzapenak adostea, etapako zuzendaria jakinaren gainean jarri aurretik.

e) Kooperatiban ezarrita dagoen sistemari jarraiki adostutako prozedurak eta etengabeko ebaluaziorako irizpideak nola aplikatzen diren gainbegiratzea, ebaluazio bakoitzean eta ikasturtean zehar. Maila berean irakasgai bera irakasle batek baino gehiagok ematen dutenean, ebaluazio-proba orokorrak eta irizpideak berberak izan daitezela bermatzea, ikasle guztiak berdintasunez ebaluatzeko.

f) Urteko programan eta Kooperatibako jarduera osagarrien plan orokorrean, ikasleen ikaskuntza aktiboa eta esanguratsua ahalbidetzeko eta haien eskola barruko nahiz kanpoko errendimendua hobetzeko moduko jarduerak eta ekimenak prestatzea.

g) Etapako kudeaketa taldearen gidalerroei jarraiki, urteko planen inguruko informazioak eta horiek ikasle eta gurasoei komunikatzeko saioen edukia koordinatu eta prestatzea. Eta, dagokionean, beste etapa batzuetarako edo

kanpo-trukerako informazioak prestatzea.

- h) Etapako kudeaketa taldean arloko curriculum-proiektua eguneratzeko proposamenak adostea, helburu hauekin: aniztasuna hobeto tratatzea, baliabideak eta ekipamenduak optimizatzea, komunikazioa hobetzea eta taldeko kideen zeregina eguneratu eta hobetzea.
- i) Departamentuko eta maila bakoitzeko irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuen emaitzak aztertzea, ikasle eta familien pertzepzioa barne, eta kanpoko erreferenteekin alderatzea.
- j) Ikastetxeko planei jarraiki, hobetzeko ekimenak zehaztu eta adostea, eta hiruhilekoan nahiz urtean behin jarraipena egiteko helburuak eta adierazleak finkatzea.

86. Artikulua.-*Bigarren hezkuntzako eta batxilergoetako orientabide-taldea*

Bigarren hezkuntzako eta batxilergoetako orientabide-taldeak zeregin nagusi hauek ditu:

[Ikus 85. artikuluko erreferentziak, eta Kooperatibaren bigarren hezkuntzako orientabide-planen zehaztapenak azaldu, adibidez, lanbide-orientazioari, bizikidetzari eta abarri dagokienean.]

87. Artikulua.-*Berariaz zehaztutako zeharkako proiektuko taldeak. Berariaz zehaztutako proiektuko taldeen eraketa eta zereginak*

Berariaz zehaztutako proiektu baterako izendatu diren irakasleek proiektuko taldea osatzen dute.

Lan-taldeak zikloko koordinatzaileak edo koordinazio-lanez arduratuko direnek zuzenduko dituzte, erakunde titularraren izenean eta zuzendaritza-taldearen eta zuzendariaren jarraibideak aintzat hartuz.

Urteko egutegiarekin batera zehaztutako lan-bileretan elkartuko dira, eta, zereginak ordenatu eta lehenesteko, zuzendaritza-taldearen eta etapako zuzendariaren jarraibideak hartuko dituzte aintzat.

Hauek dira berariaz zehaztutako proiektuko taldearen zeregin nagusiak:

- a) Proiektuaren xedea, balioak eta ikuspena zehaztea, Kooperatibakoak aintzathartuta eta zuzendaritza-taldearen eta zuzendariaren jarraibideei men eginez.
- b) Ikasturtea hasi aurretik, proiektuaren urterako plan orokorra berrikustea eta urteko plan berriaren helburuak eta edukiak eguneratzea, Kooperatibaren programazio orokorra, zuzendaritza-taldearen jarraibideak eta urteko planaren nahiz heziketa-proiektuaren helburuak kontuan hartuta.
- c) Asteko, hileko eta hiruhilekoko unitateetan aurreikusitako esperientziak eta jarduerak modu koordinatuan aplikatzeko egin beharrekoa egitea. Esperientzia eta metodologia gainbegiratzea eta ikasleen, irakasleen, irakasle ez diren langileen,

familien eta abarren gaitasun, behar, interes eta abarretara egokitzen den ebaluatzea.

- d) Proiektuaren urteko plana nola garatzen den eta ezarritako adierazleen arabera zenbateraino bete den aztertzea, hiruhilekoan behin. Beharrezko egokitzapenak eta neurri zuzentzaileak adostea, eta zuzendaria jakinaren gainean jartzea.
- e) Proiektuaren urteko emaitzak aztertzea, ikasle, familia, langile eta abarren pertzepzioa barne, eta kanpoko erreferenteekin alderatzea. Ikastolako/ikastetxeko planei jarraiki, hobetzeko ekimenak zehaztu eta adostea, eta hiruhilekoan nahiz urtean behin jarraipena egiteko helburuak eta adierazleak finkatzea.
- f) ...